

**Ibarrako gazte-hizkera: kode-
alternantzia**

Sakontze Egitasmoa 2013

Lierni Etxeberria Zubelzu
Tutorea: Kike Amonarriz

0. AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. MARKO TEORIKOA.....	4
2.1 Hizkuntza-ukipena	
2.2 Kode-alternantzia	
2.3 Gazte-hizkera	
2.4 Textspeak	
3. AZTERKETA.....	9
2.5 Helburuak	
2.6 Hipotesiak	
2.7 Hitzunak	
2.8 Ibarraren hizkuntza ezaugarriak	
2.9 Metodologia	
2.10 Transkribaketa-irizpideak	
2.11 Ahozko jardunaren azterketa	
2.12 Adin-tarte bakoitzaren deskribapena eta konparaketa	
2.13 Gainerako lanekiko konparaketa	
4. ONDORIOAK.....	33
5. BIBLIOGRAFIA.....	35
6. ERANSKINAK.....	37

1. SARRERA

Herrialde elebidunean bizi garenik ezin dugu ukatu. Euskal Herritarrok, bi hizkuntza baititugu ofizialtzat onartuak direnak, hegoaldean, euskara batetik, eta gaztelania bestetik, eta iparraldean, berriz, frantsesa bestetik. Honen ondorioz, gizarte elebidun batean bizi gara, eta pixkanaka ingelesa ere geroz eta gehiago sartzen ari denez, gizarte eleanitz baterantz goaz. Horrelako gizarteetan, ohikoa izan ohi da bi hizkuntzak nahastea. Eta beraz, code-switching edota kode-alternantzia deritzogun fenomenoak gertatzen da. Hitzunak bi hizkuntzak menperatzen dituzenez, hitz egiterako garaian bi hizkuntzetako hitzak nahiz egiturak nahasten ditu, eta nahasketa horri kode-alternantzia esaten zaio.

Badakigu fenomeno hau gure inguruan ere gertatzen dela, elebidunak garen neurrian, beraz, lan honetan, Ibarrako gazte-hizkeran zer-nolako kode-alternantzia agertzen den aztertuko dut. Helburu orokorra, Ibarrako gazteek euren hizkeran kode-alternantzia noiz eta nola erabiltzen duten aztertzea izango da, eta bi adin-tarte desberdinen artean emandako bilakaera aztertuko dut. Helburu zehatzagoetara joz, ordea, alternantzia hau gaztelerarekin bakarrik gertatzen ote den ikusiko dugu, Bestalde, kode-alternantzia zein eremutan gertatzen den ere behatuko dut (lexikoan bakarrik gertatzen ote den, edo sintaxian...). Eta azkenik, gai honen inguruan beste zenbait herritan ere egin dira azterketak, eta horietan gertatzen denarekin alderatu nahi nuke Ibarrako kasua. Horretarako, bi adin tarte hartu ditut, 12-15 urte bitartekoak batetik, eta 22-25 urte bitartekoak bestetik.

Lan honetan, hasteko kode-alternantziaren inguruko zenbait zertzelada azalduko ditut. Ondoren, lan egiteko jarraitu dudun metodologia azaldu dut, eta ondoren emaitzak eta ondorioak aipatu ditut. Azkenik, eranskinetan, eztabaida taldeak zuzentzeko erabili ditudan galdera-zerrendak, hitzunei pasa dizkiedan inkesta soziolinguistikoak eta egindako grabazioaren transkripzioak jarri ditut.

2. MARKO TEORIKOA

2.1 HIZKUNTZA UKIPENA

Kode-altzernantziak hitz egiteko, ezinbestekoa iruditzen zait hizkuntza-ukipenaren inguruko zertzelada batzuk ematea. Izan ere, kode-alternantzia hizkuntza-ukipenaren ondorioetako bat izan daiteke. Eta zer den hizkuntza ukipena? Uriel Weinrich-en arabera: *bi hizkuntza edo gehiago ukipenean direla esaten da pertsona berek txandaka erabiltzen baldin badituzte* (1953:1). Bi hizkuntza (edo gehiago) elkarren ondoan elkarbizitzen ari direnean gertatzen da, bi hizkuntza-komunitate lurralde berean guztiz isolaturik badaude, ukipenik ez dagoela esango dugu, nahiz eta egoera hau pentsaezina den. Fishman soziolinguistaren arabera, bi hizkuntza ez dira bi talde desberdinetan banatu behar, izan ere, erabiltzen dituzten hizkuntzak ez dira isolatuak, bien artean gain-jartze bat edo “batasun” moduko bat dago.

Munduan asko dira elkarren ondoan eta elkarrekiko harremanetan bizi diren hizkuntzak, eta euskara ere ukipen egoera horretan egon izan da betidanik, alde batetik frantsesa dugu, eta bestetik, berriz gaztelera. Elkarren ondoan bizitzearen ondorioz, hizkuntza hauek eragin nabarmena dute euskararengan. Frantsesa eta espainola baino lehen ere baziren hizkuntza asko eta asko euskararekin ukipen egoeran egon zirenak: latina, arabiera, zelta, iberoa, okzitanoa... Gaur egun, euskaldun guztiak elebidun, edota eleanitzak garela esan genezake, euskaraz gain, gutxienez, gaztelania edota frantsesa badakizkigu, eta baita ingelesa ere askok eta askok. Ezagutzeaz gain, erabili ere erabiltzen ditugu. Hizkuntza horiekin elkarbizitzeak ondorio batzuk ekarri dizkigu, eta horietako bat lan honetan aztertuko dugun kode-alternantzia edota *code-switching* delakoa da.

2.2 KODE-ALTERNANTZIA

Aurreko atalean aipatu bezala, kode-alternantzia hizkuntza ukipenaren ondorioetako bat da. Hizkuntza ukipenaz ari ginenean, bi hizkuntza edo gehiagoren elkarbizitzaz ari garela esan dugu. Bi hizkuntzak egoera elebidun orekatuan baldin badaude, hiztunak bi hizkuntzak ezagutzen ditu. Maiz, hizkuntza horietan eraginak izan daitezke. Eragin horiek “interferentzia” bezala ezagutzen ditugu. Beraz, esan liteke, interferentziak gertatzeko hiztun komunitate elebidun bat izan behar dugula.

Bi hizkuntza hauek, gure kasuan gaztelera (edo frantsesa) eta euskara izango liratekeenak, kontaktuan dauden momentutik, interferentziak maila desberdinetan ager daitezke Maitena Etxebarriaren hitzetan (2003:3):

Desde el momento en que dos códigos lingüísticos se encuentran en situación de contacto, la interferencia puede producirse en todos los niveles: tanto en el léxico (donde más fácilmente puede darse) como en el sintáctico e incluso en el fonológico.

Interferentzia hauek diskurtsoan txertatzeko bi modu daudela dio Coyos Etxebarnek: kode-nahasketa eta kode-alternantzia. Biak oso antzekoak dira eta ez da erraza bereiztea. Kode-alternantzia elkarrizketa mailako fenomeno da, bi hizkuntza-alternantzia mota bereizten dira: egoera mailakoa eta elkarrizketa mailakoa. Egoera desberdinen arabera gertatzen dena eta diskurtso berean hizkuntza bat baino gehiago txandakatuz hitz egitea.

Interferentziak Weinrich-en arabera, kontaktuan diren bi hizkuntzetan izan daitezke, baina, aipatu behar da, interferentzia gehienek normalean norabide berbera izan ohi dutela, hizkuntza menderatzaitetik menderatura, hain zuzen ere.

Luzera desberdineko kode-alternantziak daudela dio Imanol Esnaolak (1996:33):

Hasi testuinguru zehatz bateko elkarrizketa osoa menderatzetik eta hitz bakar baten alternantziaraino. Lehenengo kasua egoera-mailako kode-alternantzia da. Elkarrizketa mailakoak, berriz, elkarrizketa zati batetik hasi eta perpaus oso bat edo perpaus osagai guztietarainokoa izan daiteke.

Kode-alternantziaren ondoan, mailegu edota kalko kontzeptuak ere agertzen dira. Baina, ez dira inondik inora ere gauza bera. Mailegu eta kalkoak hizkuntza-komunitate osoak onartzen ditu, kode-alternantzia ordea, bat-bateko hautua izan ohi da.

Inma Muñoaren lanean (2002) aipatzen denez, kode-alternantziaren funtzioei dagokienean, iritzi desberdinak daude:

Ikerketa-mota ugari aurkituko dugu kode-aldaketaren ezaugarri edo funtzio pragmatikoen azterketan. Batetik, kode-aldaketei funtzio zehatz eta jakinak egozten dizkieten egileak izango ditugu (Blom and Gumperz, 1972; Sánchez 1983, beste askoren artean) eta bestetik, kode-aldaketa eta hizkuntza-hautaketa estrategia politikoak direla esaten dutenak (Heller, 1992). Bi joera horien artean kokatzen diren beste hainbat lan ere aipatu ditugu (McConvell, 1988; Myers-Scotton, 1993b; and Scotton and Ury, 1977). Azken horiek diskurtsoaren barruan kode-aldaketak izan ditzakeen funtzioak (haserrea, autoritatea, enfasia eta antzekoak adieraztea) kontuan izango dituzte baina ez dute ahaztuko kode-aldaketak komunitate horren hizkuntza-hautaketaren testuinguruan duen kokalekua zein den.

Laburbilduz, beraz, hizkuntza ukipenaren ondorio linguistiko bat da kode-alternantzia. Ukipen egoeran dauden hizkuntza komunitate asko elebidunak dira, eta ondorioz, hizkuntzen arteko interferentziak sortzen dira. Interferentzia horiek kode-alternantzia gisa txertatzen dira diskurtsoan.

2.3 GAZTE-HIZKERA

Gazte hizkeraz hitz egitea baino, gazte hizkerez hitz egin beharko litzateke. Izan ere, Kike Amonarrizek dioten bezala “errealitate soziolinguistiko adina” gazte hizkera dago (2009:168). Gazte euskaldunen kasuan, euren hizkera aurkakotasun-jarrerara batek sortua dela esan genezake. Izan ere Orreaga Ibarrek (2009) dioten bezala:

Gazteek beren euskara sortu nahi dute, “agintarien” aurka. Kasu honetan, agintariak gurasoak eta irakasleak dira eta, azken batean, pertsona horien euskara bat dator estandar bateratuarekin.

Gazte hizkera transgresiboa dela dio Amonarrizek (2008), arauen aurka joan eta botere hizkuntzarengandik urruntzea baitu helburu:

Horretarako batua, euskalkia, erdara, dena batera erabiliko dute, ahoz ez ezik, idatziz ere bai.

Izan ere, ahozko jardunean erabiltzeaz gain, gaur egun, teknologia berrien garapenaren ondorioz, idatzizko jardunean ere erabili ohi dute beraien hizkera. “Hizkera gainbeheratua” erabiltzen dutela dio Ibarrek, aditzik, syntaxirik edo azenturik gabekoa eta ageriko hiztegi urritasuna daukana. Bi berezitasun ageriko ditu:

- Hizkera nahasia dela.
- Kode-alternantzia nabarmen agertzen dela.

Hizkera gainbeheratua edo pobrea dela diote, baina, Orreaga Ibarrek (2011: 22) bere lanean aipatzen duenez, kontuan hartu behar dira Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak emaniko azalpenak, gaur egungo gazteen euskarari dagokionez:

- Azken hamarkadetan lurralde hedapen handia izan du euskarak, batez ere gazteen artean. Esan daiteke gaur egun ez dagoela euskaldun elebakarrik.
- Euskaldun guztiak elebidun edo eleaniztunak gara. Horrez gain, gaur egun euskaldunen artean gero eta gehiago dira jatorrian euskaldunak ez zirenak eta gaztelaniaz edo frantsesez euskaraz baino hobeki moldatzen zirenak.
- Euskal probintzietan euskaldunak gero eta gehiago dira, nahiz eta Nafarroan joera hori poliki-poliki joan eta Iparraldean euskaldun kopurua murriztu.
- Gero eta euskaldun gehiago daude, batez ere umeei eta gazteei esker.
- Gero eta zailagoa da euskara pixka bat ez dakiten gazteak aurkitzea.

Amonarrizek, HIZNET ikastaroan emandako txostenean dio euskararen ezagupen eta erabilera indizeak altuak diren herri batzuetako gazteen idazkiak aztertu ondoren, honako joera hauek antzeman dituela, esaterako:

- Euskal Herrian orokortu diren hizkuntza egituren erabilera desegokiak: *“joan dezake etxera?”*
- Aldaketa sakona aditzaren paradigman (herri bakoitzean desberdinak): *“bazinda joan bainura?”*
- Erdararen interferentzia etengabeak (orokorrak nahiz lokalak): *“ere bai esan du ke goiz iritsiko dela”*
- Lexiko aldaketa.
- Tradiziorik gabeko euskararen erabilera modu berriak edo ez zuzenak. Batzuk: *“argot”* edo hizkera berri baten abiapuntua izan daitezke: *“kriston ona da”, “zikinbrillo”*

Joera hauei erreparatuz gero, garbi ikus daitezke aurretik aipatu ditugun bi ezaugarriak. Zenbait adituren ustetan, gazteleraren eta euskararen arteko *pidgin* batetik gertu egon gintezke, *euskañol* ere deitzen diote batzuk.

3. AZTERKETA

3.1 HELBURUAK

Sarreran aipatu bezala, lan honetan, Ibarrako gazte-hizkeran gertatzen diren kode-alternantziak aztertu nahi nituzke. Hasierako helburu orokorra, gazte ibartarrek euren jardunean kode-alternantzia noiz eta nola erabiltzen duten aztertzea izango bada ere, bi adin-tarte aukeratu ditut azterketa honetarako, eta fenomeno honi dagokionez beraien arteko bilakaera eta garapena ikusi nahi da.

Horretaz gain, badira beste helburu zehatzagoak ere. Batetik, kode-alternantzia hau gaztelerarekin bakarrik gertatzen ote den ikusiko dugu. Izan ere, hasieran aipatu bezala, ingelesa ere geroz eta leku gehiago hartzen ari da gure artean. Eta idatzizko nahiz ahozko jardunean kode-alternantzia berdin gertatzen ote den ere ikusi nahi da. Fenomeno hau hizkuntzaren zein eremutan ematen den ere aztertuko dugu, hau da, ea lexikoan bakarrik gertatzen ote den, edota sintaxian, morfologian eta gainerako eremuetan ere ageri den. Izan ere, nabarmenena agian lexikoaren eremua bada ere, bestelakoetan ere gertatzen da kode-alternantzia, eta horixe da ikusi nahi duguna, ea zenbateraino gertatzen den. Azkenik, eta helburuen atalarekin bukatzeko, beste hainbat herritan gai honen inguruan egin diren lanen emaitzekin konparatu nahi nituzke Ibarrako emaitzak ere. Azpeitiako, Ordizia eta Zaldibiako, Getariako eta Nafarroako gazteen inguruan egindako lanak topatu ditut, eta horiek izango dira nire lanean erabiliko ditudanak.

3.2 HIPOTESIAK

Lan honetan, Ibarrako gazteen arteko hizkeran gertatzen den kode-alternantzia aztertu nahi da. Hasiera batean, ez da nobedade handirik espero, hau da, aurretik beste hainbat tokitan egin diren lanen emaitza antzekoak izatea espero da. Zenbat erabiltzen duten, eta noiz erabiltzen duten jakitea da helburuetako bat. Arrazoi

nagusia, adierazkortasuna dela esango nuke. Bestalde, gazte hizkera denez, ezin liteke ukatu helduen aurka joatea dela gazteon ezaugarri nagusietako bat eta helduek euskara “garbiagoa” darabilenez horren erantzun gisa ere har daiteke gazteon jardunean ageri diren kode-alternantzia guzti horiek ere. Bi adin-tarte aukeratu ditut lan honetarako, eta bien artean dagoen desberdintasuna ere ikusi nahi nuke. Hasierako hipotesi gisa, gazteenen jardunean hizkuntza nahasketa handiagoa izango dela esango nuke. 12-15 urte bitarteko gazteak oraintxe baitaude ikastolaren, helduen eta oro har guztiaren aurka egin beharreko adin horretantxe. Eta nire susmoa da gaztelerak eragin handiagoa duela euren hizkeran. Behin adin batetik aurrera euskararekiko “begirune” handiagoz jokatzen dugula esango nuke. Azkenik, kode-alternantziaren fenomeno hau gaztelerarekin bakarrik gertatzen ote den aztertu nahi dudala esan dut aurretik. Eta kasu honetan, ahozkoari dagokionez, gaztelerazko interferentzia gainerako hizkuntzen oso gaintetik dagoela esango nuke.

3.3 HIZTUNAK

Lanari ekiteko, lehendabizi hiztun bila hasi nintzen. Hitztunek Ibarrakoak bertakoak izan behar zuten, eta euskaldunak. Lehen esan bezala, bi adin-tarte aukeratu nituen, ondoren bien arteko kode-alternantziaren bilakaera bat egin ahal izateko: 12-15 urte bitartekoak izango ziren gazteenak, eta 22-25 urte bitartekoak besteak. Gazteenak, guztiak Ibarrako ikastolako ikasleak dira, eta orohar euren bizitza Ibarran egiten dutenak. 22-25 urte bitartekoak, berriz, Ibarrako ikastolan ikasitakoak badira ere, ondoren unibertsitate edota bestelako ikasketak Ibaratik kanpo egin dituztenak dira.

12-15 urte bitarteko gazteengana gerturatzea ez zitzaidan oso erraza egiten, eta gutxiago horrelako eskaera bat egiteko, beraz, Ibarrako Uzturpe Ikastolara joan nintzen laguntza eske, lan bat egiteko adin-tarte horretako gazteak behar nituela esanez. Inongo oztoporik ez zidaten jarri eta edozertan laguntzeko prest agertu ziren. 6 ikasle aurkeztu zizkidaten, D.B.H. 1, 2, 3 eta 4.mailakoak. 3 neska eta 3 mutil. Pare bat nahiko isilik egon baziren ere, gainerakoek lan txukuna egin zuten.

22-25 urte bitarteko hiztuntzat, berriz, nire inguruko lagun batzuk aukeratu nituen. Beste sei izan ziren, eta nik aukeratu nituen guztiak prest agertu zirenez lan honetan parte hartzeko ez nuen buruhauste handirik izan hiztunak topatzerako orduan. Etxetik euskaldunak zirenez gain, etxean gaztelera erabiltzen zutenak ere sartu nahi nituen taldean, eta lagunak horren arabera ere aukeratu nituen: izan ere bostetik bik etxean gurasoetako bat ez du euskalduna. Gazteenen taldean, berriz, ikastolako irakasleek aukeratu zituzten gazteak, eta beraz, ez nuen irizpide horren arabera aukeratzetik izan, dena dela, seitik bik gurasoetako bat erdalduna dute kasu honetan ere.

3.4 IBARRAREN HIZKUNTZA EZAUGARRIAK

Ibarra Tolosaldeako eskualdean kokatzen den herri bat da, Tolosaren ondo-ondoan dago. 2012ko datuen arabera 4269 biztanle dituen herrixka bat da. 60ko hamarkadan, Ibarrak orduratego biztanle-kopurua bikoiztu egin zen, Espainiatik jende ugari etorri baitzen. Etxebizitza asko (San Inazio auzoa eta Euskal Herria kalea) eraiki ziren garai horretan. Etorritako jende-oldeak Ibarrari “lo-hiri” izaera eman dio, ez baitu, lanposturik. Inmigrazio hori 1950etik 1980ra bitartean eman zen 60ko eta 70eko hamarkadetan batez ere.

Euskararen egoerari dagokionez, Ibarren erroldatutako herritarren artean %68 da euskalduna eta %16, berriz, ia euskalduna. 2007an egin ziren kale-neurketen arabera, ordea, hizkuntza jokabideen erdia baino gehiagotan (%56.9) euskara erabiltzen da (Siadeco, 2007). Adinaren arabera, aldeak nahiko nabarmenak dira:

- 14 urte arteko haur eta gaztetxoek Ibarrako kaleetan nagusiki euskaraz egiten dute, euskararen erabilera-indizea %84.8 izanik; batez besteko erabilera-mailaren gaineratik dago, 28 puntu inguruko aldearekin.
- 15 eta 24 urte arteko gazteen artean euskararen erabilera-indize horrek behera egiten du, ia 10 puntu baxuagoa da eta %75,5ean kokatzen da. Edonola ere batez bestekoaren gaineratik dagoen datua da 18 puntu inguruko aldearekin.

- 25 eta 40 urte arteko gazte-helduen arteko harremanetan, euskaraz aritutakoen ehunekoa %57.4 izanik, batez besteko indizearen parean geratzen da.
- Kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera indize baxuena erakusten duen adin-tartea, 41 eta 60 urte arteko helduena da; kasu honetan euskararen indizea %35.6 izanik eta gaztelaniarena %64,4.
- Azkenik, 60 urtez gorako artean euskararen kale erabilerak zertxobait gora egiten du %38.7 izanik nahiz eta batez bestekoaren azpitik geratu.

15-24 urte bitarteko gazteak gazteek bakarrik parte hartzen duten elkarrizketetan euskara gehiago erabiltzen da (%76), gazte horiek beste adin batzuetakoekin elkartzen direnean baino (%56, tartean haurrik gabe). Oro har, bai gazteek eta bereziki haurrek, euskaldundun egiten dituzte Ibarrako kaleetako elkarrizketak.

Etorkinei dagokienez, Ibarrara etorri diren etorkinen kopurua gora doa. Etorkin horien seme-alabak euskaraz eskolatuak izan ohi dira eta integrazio linguistikoa erabatekoa da. Gurasoei dagokienez, ordea, gehienek lehenengo gaztelera ikasten dute, eta horietatik oso gutxi dira ondoren euskara ikasten hasten direnak.

3.5 METODOLOGIA

Eztabaida-taldea, ingelesez *Focus group* deritzona, erabili nuen ahozko laginak jasotzeko metodo gisa. Zeharkako metodo kualitatiboa da. Helburu nagusia, guk aukeratu ditugun hiztunek gai baten inguruan dituzten uste eta iritziak plazaratzea da. Metodo honen oinarria hizketa irekia da.

Eztabaida-talde horietan, gaia euskararekiko ditugun iritzi eta jarreraren ingurukoa zen. Baita beraien euskararen erabilpenari buruzkoa ere. Hasiera batean, ez nien azaldu zertan zetzan nire lana, beraien hizketa naturaltasun osoz ematea zen helburua. Eta lanean zer aztertu nahi nuen azaldu izan banie, agian alterazio batzuk

egon zitezkeen beraien eguneroko hizkeran. Hori saihestearren, behin beraien jarduna grabatu ondoren azaldu nien zehazki zer izango zen aztertu nahi nuena.

Bi grabazio egin nituen, beraz, bata 12-15 urte bitarteko gazteekin, eta bestea 22-25 urte bitartekoekin. Aurretik aipatu dudan bezala, gazteenen taldea osatzeko Uzturpe Ikastolara joan nintzen laguntza eske. Grabazioa beraien klase orduetan grabatu genuen, ikastolako liburutegian bertan. Bigarren taldearen grabazioa egiteko, berriz, guztion artean data bat adostu eta iluntze batean geratu ginen, Ibarrako Kultur Etxean eskatu genuen gela batean grabazioa bertan burutzeko.

Behin grabazioak eginda, horiek transkribatzeari ekin nion. Hurrengo azpiatalean azalduko ditut transkribaketa egiteko jarraitu ditudan irizpideak. Bi eztabaida-taldeetan beraien hizkerak erabili zituzten, eta beraz, nik neuk ere entzun moduan transkribatu ditut, gaztelerazko hitz edo esamoldeak izan ezik.

3.6 TRANSKRIBAKETA IRIZPIDEAK

Atal honetan, lanerako erabili ditudan transkribaketak nola, zein irizpideri jarraituz egin ditudan azalduko da. Hasteko eta behin, <h>-ren kontua argitu nahi nuke. Ibarran, ez gazte, ez heldu eta ez inork, hasperenik ahoskatzen ez badu ere, eginiko transkribaketetan (laburtzapenik ez dagoen hitzetan) agertuko da: *hitz egin, hizkera...* Horren arrazoia, ulergarritasuna da, irakurketa ulergarriagoa izan dadin, eta batutik gehiegi ez aldentzeko asmoarekin.

Bustidurak ahoskatu bezala idatziko dira <tt> adibidez: *hitzeitte, ohittura, settun...* <n> aurretik <i> agertuz gero <ñ> transkribatuko da: *iñoiz, etorkiñak, baño, zeñekin...* <l>-ren aurretik <i> agertuz gero, berriz, <y> idatziko dugu, izan ere, gaurko gazteok apenas ahoskatzen baitugu <ll>-rik: *kuadriya, mobiya, zaya...* Bestelako bustidurarik ez da agertuko normalean.

“Ere” partikula beti bereizita idatziko da, batzuetan <re>, besteetan <de> edota <e> bezala agertuko da: *beraiek de, guk re, e bai...* Eta baita adizki perifrastikoak ere, bereizita idatziko dira, baina tartean komatxo bat dutela: *izango’a, itzeitte’zue, itzeite’ieu...* Ezezko formak ordea, beti elkartuta idatziko dira: *eztezue, eztiqelako, ezta...*

Bestalde, “pixka bat” esamoldea, hemen inguruan “pixkat” esaten dugunez, beti horrela idatzi dut, hau da, elkartuta: *pixkat*.

Azkenik, forma kontuari dagokionez, honako zerrenda hau aipatuko nuke:

[xxx]	Erabiliko da transkripzioa egin duenak esan dena ez badu ulertu.
<i>Ikastolan-ko</i>	Zerbait esaten hasi eta ondoren.
(BARREZ)	Parentesi artean eta maiuskulaz momentuko egoera adieraziko da.
(...)	Transkribatu gabeko tarreak adierazteko erabiliko da.

3.7 AHOZKO JARDUNAREN AZTERKETA

Behin metodologiaren nondik norakoak azaldu eta gero, ahozko jardunaren azterketa egiteari ekingo diot. Aurretik esan bezala, lan honen helburua, Ibarrako gazteen arteko hizkeran gertatzen diren kode-alternantziak aztertzea da. Atal honetan gazte hauen ahozko jardunak aztertuko ditut, aspektu linguistikoaren arabera azterketa egingo dut, hau da, aspektu linguistikoaren arabera aztertuko ditut adin-multzoak, eta bukaeran, adin-multzo bakoitzean gertatzen denaren deskribapena eta konparaketa orokorra egingo dut.

Kode-alternantzia normalki esaeretan, hitzetan, diskurtsoa antolatzeko partikuletan, morfosintaxian edota lexikoan agertu ohi da. Nik ere atal horiek banatu ditut azterketa egiterako garaian.

ETENGABE ERABILTZEN DIREN GAZTELERAZKO PARTIKULAK:

- **Es que > eske:** gazteen artean geroz eta ugariagoa den esamolde bat dugu hau. Azalpenak emateko baliatzen dugu. Bi hitzez osatua badago ere, hitz bakar gisa tratatu ohi da. Euskaraz gazteek geroz eta gehiago erabiltzen dute, eta Orreaga Ibarraren ustez lexikalizazio bidean dagoela esan genezake. Hona hemen nik eginiko grabazioetan topatu ditudan adibideetako batzuk:
 - **Eske segun...eske batzuk...** (12-15 urte bitarteko gaztea, Joseba)

- *baño **eske** mutiyak, prolema da mutiyana gehio entzue'ala neskana baño* (12-15 urte bitarteko gaztea, Joseba)
- *segun **eske** segun ze jendek erderaz hitzeiten bau nahiz ta euskeraz jakin nik normalen erderaz hitzeite'iot* (12-15 urte bitarteko gaztea, Tider)
- *ya euskeraz ezberdiña **eske** eztakit* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jone)
- ***eske** Gaztea re eztue iten en plan kanta oain dauden famatunak edo? ta maioria kanpokok izate'ia eztie euskaldunak izaten* (12-15 urte bitarteko gaztea, Aimar)

- *hoi da nik re hika hitzeite'tenen hitzeite't mutiyentzako zukin ai balin banaiz mutiya e mutiyai bezela hitzeingo'izut ze nik hika neskantzako eztakit adibidez, **eske** hoi ba eztakit.* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
- ***eske** nabarmena da oso* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- *...**eske** nik eztaukat erderaz hitzeiteko gaitasun hoi* (22-25 urte bitarteko gaztea, Maider)
- *Jo **eske** minimo* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)

- **A ver > aber**: zerbaitetaz ohartarazteko, zehar-galdera batzuen aurretik, euskarazko "ea" partikularen baliokidea ere izan daiteke. Euskaraz oso hedatua dagoen esamoldea dugu hau ere.

Ohartarazteko:

- **Aber** zerbait bai baño enaiz kapaza konbersazio bat mantentzeko (12-15 urte bitarteko gaztea, Tider)
- **Aber** planteatuko'izuet... (Moderatzailea, ni)

- **Aber** ingurun balin baukazu bat erdalduna o hola ta ze-ze elkarren arten ta hola (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.C.)
- *Eske nik hoi aber,* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
- *Ta aber ta gero ikuste'zu umea ta* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

Zehar-galdera baten aurretik: gazteenen artean adibiderik topatu ez dudan arren, ohikoak izan ohi dira horrelakoak ere.

- **Aber** noiz esango'eten zerbait (Moderatzailea, ni)
- *Ikusteko aber ze pasatze'an* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

"Ea" partikularen orde: horrelakorik ez dut topatu gazteenen artean, baina horrelakoak ere ohikoak izan ohi dira.

- *eta aber denetan hizkuntza berdiña erabiltze'un* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
- **Bueno:** diskurtsoa antolatzeke balio du partikula honek. Birformulatzailea dela dio Ibarrek (2011: 136), hiztunak gaia aldatu, zuzendu edota berreskuratu dezake. Horrez gain, batzuetan aurkaritzako lokailua izan dezake ondoan, lehenengo adibidean bezala:
- *Ezteu guk akoplatu beharko berea baño bueno* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jon)
 - **Bueno, segun, saiatu in beharko zan** (12-15 urte bitarteko gaztea, Joseba)
 - **bueno euskeraz e bai** (12-15 urte bitarteko gaztea, Jone)
-
- *baño, adibidez ba bueno, beste batzuekin elkartze naizenen etzait ateatzen* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
 - *bai baño bueno eskolapiotako jendek e bai euskeraz hitzeite'u* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
 - *ba bueno, ba nik uste nahikoa ite'uela e nik ikuste'itut* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

➤ **Asi que > Asike:** ondorioa adierazten duen lokailua da, euskarazko “beraz”-en baliokidea. Gazteon hizkeran askotan atzeman daitekeen partikula da, nahiz eta honerako eginiko grabazioetan ez dudan adibide askorik topatu.

- *gure familin ia denak, ta ordun, ai-aitez ya belarrie ittea azken fiñen aitzekin, **asike**...* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jon)
- *ba nik jartze'tenen ingelesez ta hola eote'ie denak **asike** eztakit* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jon)
- *Ba nik oañ eztauket, **asike**...* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- *ta zan como haste giñen erderaz ba ba ba baaa eta gero euskera sartze genula **asike** hor konprobatu zan denak euskeraz hitzeiteko ohitura daukeula* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

➤ **Pues>pos:** arrazoiren bat ematerako garaian erabiltzen da, galdera bati erantzuterakoan, esaterako:

- - *Eta zuek erderaz zeatikan?* (Moderatzailea, ni)
- - *Eztakit **pues** serie gehio daude* (12-15 urte bitarteko gaztea, Tider)
- *baitare igual balin bazaude irakaslen e talde haundin eo hola elkartuta **pues** batuan* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
- *baño saiatu beti ite gea, bat dao ta igual gaude hogeit pertsona ta bat dao ta ya denak joe **pues*** (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- ***Pues** erdera eta euskera, eta holaxe eon gea* (22-25 urte bitarteko gaztea, Maider)
- *Ta nik horreatik **pues** beti **pues** euskeraz ite't* (22-25 urte bitarteko gaztea, Maider)
- ***pos** jakin beha-jakin beharra aukea* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)

➤ **Hombre:** Ibarraren hitzetan (2011:128) argudioa indartzeko diskurtso-markatzailea dugu honakoa, elkarrizketetan sarrien erabiltzen den markatzaileetako bat. Doinua nolakoa den, batzuetan desadostasuna ere adierazten du. Erantzunaren hasieran ere erabili ohi da.

- **hombre**, euskeraz beti ez? *In beharko litzeke baño eztakit zeba beti erdera jotze deu* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jon)
- **hombre** den dena re ezta baño (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- *holako gauzak planteatu, hombre!* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
- **hombre** in beharra daukezu (moderatzailea, ni)

➤ **Klaro>karo:** gazteenen artean adibiderik topatu ez badut ere, helduenek askotan darabilten hitza da hau, batik bat pertsona batek. Arrazoi emateko edota harridura adierazteko erabiltzen da, honako adibidean agertzen den moduan:

- - Ander.C.: *baño lehen nola zeon, okerrago zeo-osea hobeto?*
- - Miriam: **karo**

Badira erabiltzen diren beste kasu batzuk, jarraian emango dizkizuedanak, adibidez, diskurtsoa antolatzeke partikula gisa har genezake.

- *Bai nere a- desberdiña da nere aita karo damakizki hemen zenbat urte bizitzen, hogeita hamar, azkenen...*(22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- *eske gu izan zan karo beida nik eztauket prolemaik beakin hitzeiteko baño Pagolakin erderaz hitzeitea* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

➤ **O sea>osea**: azalpenak emateko lokailu gisa erabiltzen da. Gazte erdaldun nahiz euskaldunen artean etengabe erabiltzen den makulu horietako bat da. Ibarra (2011 : 132), analisi estatistikorik ez badago ere, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiagotan erabiltzen dutela esatera ausartu zen. Eta gure laginaren arabera, esan genezake, 22-25 urte bitarteko gazteengan behintzat hala izan daitekeela.

- *jo nik re tuenti euskeraz baño twiter erderaz **osea** tuenti erderaz daukat* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jone)
- *ez azaltze zaizkizunak jute'zea ematen dauden abestik, **osea** youtuben daude gei-gehien ikusitakok* (12-15 urte bitarteko gaztea, Joseba)
- *nik adibidez e baita beti neskakin baño e baita esate'zuna segun zeñekin bauzket konkre- **osea** pertsona konkretu batzuk, ba batzutan hika hitzeite deula* (22-25 urte bitarteko gaztea, Maider)
- *Bo eztakit nik attona ta amona **osea** baserrikok die ta tarteka* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
- *esate bau educadamente eztakila erderaz, **osea** eztakila euskeraz mesedez erderaz iteko etzaizu kostatzen, baño gaizki esate baizu* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.C.)
- *nik dauket "casteyano simple" **osea** ulertze't eta hoi baño vocabulario basico* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

Bestalde, birformulatzailerik bezala ere erabili ohi da Orreaga Ibarraren esanetan (2011:132), argudioa zehaztu edo bideratzen duelako.

- ***osea** eztaola ondo, beak euskeraz ikasi bearren guk erderaz itzeite badeu beak iñoiz eztu ikasiko* (12-15 urte bitarteko gaztea, Aimar)
- ***Osea** denetik dao hoi da.* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

- *ba nik e bai esan ite't eztakitela ondo erderaz, osea berdin berdin.* (22-25 urte bitarteko gaztea, Maider)
- *bi zerbeza (behatzekin eginez) ateatze zea gauen eta ite'ituzu señaak ta esate'izu "no no en casteyano por favor" osea barkatu, eskerrikasko, bat, bi, hiru, zerbeza, kafea e coca cola denak ulertze'ue* (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)

Enuntziatu bukaeran, amaiera balioa ere izan dezake:

- *ta beak e ulertze'u osea* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

Gazteleraz ere oso hedatua dagoen lokailua da hau, eta euskaraz ere ahozkoan askotan erabiltzen da. Ibarrek (2011:132) bitxikeri gisa aipatzen du, gaur egungo belaunaldiari *o sea* deitu izan zaiola behin bano gehiagotan.

- **Ya:** adostasuna agertzeaz gain, "jada" esanahiarekin ere askotan erabiltzen den lokailu bat da. Gehien agertzen den interferentzietako bat dela esan daiteke, oso onartua baitago euskaraz.

- *beaiek ohituta daudelako beste beste erderaz hitzeitea, ya beste hizkuntza bat dakie ordun hobeto komunikatzeko ba* (12-15 urte bitarteko gaztea, Joseba)
- *hemengoa ya ohituta* (12-15 urte bitarteko gaztea, Joseba)
- *baño ya oitura bezela atea itea* (12-15 urte bitarteko gaztea, Tider)
- *gure familin ia denak, ta ordun, ai-aitzez ya belarrie itte'a azken fiñen aitzekin, asike...* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jon)
- *nik tuenti neukan baño bere helburua ya bukatu zanen* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

Adostasuna agertzen duten adibideak:

- - Ni- ta nun
baño okerrago adibidez?
 - Tider- *ba erri txikigo...*
 - Jone- *ya erri txikigo...* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jone)

- - Ni- bai baño txikia izanaatik...
 - Joseba- **ya** *baño oituta daude ya an! Ta an eztakit diferentea da* (12-15 urte bitarteko gaztea, Joseba)
 - Aimar- *“ikusizut” eta “ze ikusi iazu” denbora guztin*
 - Jone- **ya**. (12-15 urte bitarteko gaztea, Jone)
 - *Batzuk bauzket, ya eztakit zeatik ba* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
 - - Ni: *dena ssss itte’ue beak eta*
 - Ander.M.: **ya** (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
 - Ander.M.: *hoi esan behar nun baño zu beti zaude denan konbersazion?*
 - Miriam: **ya** ez
 - Ander.C.: **ya** *baño zaya da e beste pertsona bati sentia-sentiarazte xxx*
- **Yasta:** bukatu dela adierazteko erabiltzen da, euskarazko “kitto”-ren baliokidetzat har daiteke. Gazteenen jardunean ez dut adibiderik topatu, helduenetan gehiago erabili da.
- *Etzaigu hoi pasa baño nik uste ohitura gehiena daukeunak batek ya eztaki **yasta** ya* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
 - *nik oain “Hitza” irakurtze’t egunero ta ta **yasta*** (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)
 - *ta **yasta** hola da eske hoi da* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- **Bastante:** euskarazko “dexente” edota “nahiko” adierazteko erabiltzen da.
- *ta guren jun da etorri ta **bastante** in dia ez?* (12-15 urte bitarteko gaztea, Tider)
 - *oso, **bastante** berde daude batzuk beintzat* (12-15 urte bitarteko gaztea, Tider)

- *nere kasun ta **bastante** kasun gure edadekotan* (12-15 urte bitarteko gaztea, Tider)
 - ***bastante** ondo* (12-15 urte bitarteko gaztea, Amaia)
 - *bai gure euskalkia hemen Tolosaldekoa nik uste **bastante** ulertze'ala* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
 - *ba gu **bastante** ondo enpresaritzako fakultaten* (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)
- **Por que > porke:** arrazoia emateko garaian erabiltzen den lokailua da.
- *bai iyotze'ittuzu esaldik, ba eztakit ze "eztakit ze ai naiz" **porke** jende gehienak holako gauzak idatze'itu* (moderatzailea, ni)
- **En plan:** "bezala" edo "moduan" adierazten du esamolde honek.
- *eske Gaztea re eztue iten **en plan** kanta oain dauden famatunak edo?* (12-15 urte bitarteko gaztea, Aimar)
 - *Baño da **en plan** ba katxondeon bezela esate deula* (22-25 urte bitarteko gaztea, Maider)
 - *Gero badaude batzuk ba, ba herri txikitakok ta hola, **en plan** Orendain dau Orendaingoa dao bat* (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
- **De hecho:** esamolde hau ere ez da askotan agertu grabazioetan, dena den entzuten denez, ez nuke aipatu gabe utzi nahi. "Gainera" adierazten du.
- ***De hecho** ni goatze naiz konprobatu'a behin etorri zan gure kuadriya eztakit zeba riojano bat* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- **Sin mas:** Orreaga Ibarrak "makulu" gisa izendatzen du, aurretik esan denari garrantzia kentzen dion aringarria da bere arabera. Elkarrizketa bukatzeko ere erabili ohi da. Grabazio hauetan ez dut honen adibide bakar bat ere topatu, baina, ez dut gutxienez aipatu gabe utzi nahi izan.

GAZTELERAZKO ESAMOLDEAK:

- **Tema aparte:** aparteko zerbait dela adierazteko erabiltzen da. Grabazio hauetan askotan agertu ez bada ere, adibideren bat topatu dut, eta egia esan, gazteon artean entzuten den esamoldea da.
 - *parte hoi tema aparte* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- **Hora punta:** gaztelera azkerak ere maiz txertatzen dira euskarazko jardunean.
 - *bai hoi re bai, arratxalden, eo eguardi aldeia eo gauen... Hora punta eo esate zaiona.* (12-15 urte bitarteko gaztea, Jon)
- **Cara al publico:** “jendaurrean” izango litzateke euskaraz.
 - *nik beti jendekin in det lan, beti jendekin eta cara al publico* (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)
- **Vocabulario basico:** “oinarrizko gaztelera” izango litzateke euskaraz.
 - *nik dauket “casteyano simple” osea ulertze’t eta hoi baño vocabulario basico* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- **La has cagau:** “hanka sartu duzu” esateko modu bat izan liteke.
 - *La has cagau!* (moderatzailea, ni)

LEXIKOA:

- **Sonatu** : “ezaguna egin” esateko erabiltzen da.
 - *sonatze ziten* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- **Guay:**
 - *hamalau urtekin izan beha’zu guaya, ta guaya da erdera ta bua ta ya inglesez hitzeite bazu* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
 - *programa guay guztik erderaz die* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

- **Txorraditas:** “txorrada” maiz erabiltzen den hitza da, “tontakeria” esateko erabiltzen da.
 - *ni lehengo urten goatze naiz udalekutan eta igual **txorraditas** eztaikit* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- **Super:** aurrizki moduan erabiltzen da, handiagotu edo areagotu egiten du ondoren doan hitzaren esanahia.
 - *ba ya **super** guay* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- **Kutrada:** “kutrada” edota “kutre” biak maiz erabiltzen diren hitzak dira, “itsusia” adierazten dute.
 - *ta oain ikusi ezkeo seguro dala **kutrada** bat baño* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
 - ***kutrea** izango’*a** (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- **Katxondeo:** “broma” adierazteko erabiltzen da, askotan ageri da hitz hau gazteon jardunean.
 - *Baño da en plan ba **kaxondeo***
- **Foto:** “argazki” adierazteko erabiltzen da.
 - *Eztu esaten “ze **foto** politta” esate u “ze argazki politta” adibidez.* (12-15 urte bitarteko gaztea, Tider)
- **Perfila:**
 - *eske enao seguru baño nik facebook-en dauket-daukezu zuk zure **perfiya** eta tuitarren bakit iyotze’ittuzu...(moderatzailea, ni)*
- **Almohadilla:** telefono mugikorretan agertzen den irudi bat da.
 - *baño hortaz gain gero hor dauden eztaikit ze **almohadiya*** (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)
- **Popurri:** “nahasketa” edo “nahasmena” adierazten duen hitza da.
 - *nik uste ya **popurri** ves “popurri” hitza, nik uste ya eztaala esistitzen euska- eske zer da euskeraz bakarrik* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)

- **Ves:** “ikusten?” adierazten duen hitza da, indartzeko edo egiaztatzeko erabiltzen da Orreaga Ibarraren esanetan.
 - *nik uste ya popurri ves “popurri” hitza (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)*

- **Tipo:** “mutila” adierazteko hitz kolokiala da.
 - *haste gea erderaz ta bukatze deu euskeraz ta kontuatzze zea **tipoa** daola hor. (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)*

- **Flipatu:** gazteon artean, urte gutxian izugarri hedatu den hitza da, “harrituta” esan nahi du.
 - *eske klasen nik Bilbon **flipatu** ite nun (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)*

- **Riojano:** gaztelerazko jentilizio bat da, euskaraz “errioxar” izango litzateke.
 - *behin etorri zan gure kuadriya eztakit zeba **riojano** bat (22-25 urte bitarteko gaztea)*

- **Txiringito:**
 - *ba esan nun **txiringito** hau itxi ite’t (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)*

- **Segidore:** “jarraitzaile” izango litzateke euskaraz.
 - *bai hoi zuk dauzkezu **segidorek** (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M)*

Gazteleratik sartu zaizkigun hitzak, baina jatorriz ingelesak direnak ere baditugu euskaraz:

➤ **Txip:**

- *baño gero ya ttak **txipa** “ai ba goazen eztakit ze” ta bestea ostra!* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- *nei euskeraz eo erderaz etortze balin bazaizkit **txipa** azkar aldatze’t* (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)

➤ **Friki:** ingelesezko hitza da jatorriz. Informatika munduan murgilduta ibiltzen den pertsonari esan ohi zaio “frikia”.

- *nik jetxi in nitun **friki friki*** (22-25 urte bitarteko gaztea, Ander.M.)

HITZ ORDENA:➤ **Aditza esaldi hasieran:** gaztelerazko perpaus egitura erabiltzen da sarri ahozkoan, hau da, subjektuaren ondoren, osagarria eta azkenik, aditza beharrean, lehendabizi aditza eta gero gainerakoa.

- *ta geo*
***ikuste’a** andereñok eta asko esate’uela e bai guk*
kanpotarrei euskeraz in beha’ieula baño gero be-beaiek dia
lenengok gelatan erderaz hitzeite’uenak (12-15 urte bitarteko gaztea, Joseba)
- *ite deu bat*
datorrenen berria bea amoldatu beharren gurea, gu
amoldatze gea tah oi ere eztaola ondo (12-15 urte bitarteko gaztea, Aimar)
- *jartze’zu*
*Gaztea ta **emate’u** ya hemengo-hemengo abestik*
jartze’ituela baño azken fiñen dena

- *Ta gero **dauzkat** beste talde batzuk* (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)
- *Azkenen **da** plaza inguruan ibiltze'ana eztiela igual plazan bizi* (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- *ordun **ekartze zitun** umek honea pixkat **ateatzeko** ingurune hortatik* (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)
- ***daukate** joera baita beaiek ba igual haundigok diela erakusteko* (22-25 urte bitarteko gaztea, Maider)

GAZTELERAZ IRAKURRI EDO ESAN DENA ERREPIKATZEAN:

- *Hoiak eztauzkate andereño ta maixuk, hoiak dauzkate **profesorek eta profesorak**.* (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)
- *baño ume umetan e bai ikasten dian hitzak dia **“no”**, **“no”** ta **“si”*** (22-25 urte bitarteko gaztea, Maider)
- *hoi batzutan e bai pasatze'a hitzak izan gabe **“bai eztakit ze y vamos a no se que”*** (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- *eske gu izan tzan karo beida nik eztauket prolemaik beakin hitzeiteko baño Pagolakin erderaz hitzeitea, **“Pagola dame una caña” pues no me sale osea.*** (22-25 urte bitarteko gaztea, Miriam)
- *hoi pasatze'a tabernatan edo, kafe bat, **“un café”**, e **“kafe bat mesedez”**, e **“en casteyano por favor”**, e kafe bat!* (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)
- *nei hoi esan izan diate **“ebaki qué era, es que siempre me confundo”*** (22-25 urte bitarteko gaztea, Amaia)

3.8 ADIN-TARTE BAKOITZAREN DESKRIBAPENA ETA KONPARAKETA

Aurreko atalean, eztabaida-talde bakoitzean topatu ditudan adibideak zerrendatu ditut. Bi adin-tarteetan ezaugarri eta adibide antzekoak agertu direla esan genezake, dena den, desberdintasun batzuk ere egon litezke.

12-15 URTE BITARTEKOAK

Gazteenekin hasteko, 12 eta 15 urte bitarteko gazteak, hasieran aipatu bezala, ikastolatik deituak izan ziren. Ezaugarriak zerrendatzerako garaian, adibide gutxi ageri zela ikusi ahal izan dut. Eta arrazoa hori izan litekeela uste dut, hau da, ikastola izan zen grabazioa egin zen ingurunea. Irakasleek deituta etorri ziren ikastolako liburutegira grabazio hauxe egitera, eta beraz, egoera “formal” batean zeudela uste izan zuten. Bukaera aldera lasaiago aritu baziren ere, hasieran galderak egin eta erantzun motzak botatzen zituzten eta kosta zitzaigun pixka bat martxa hartzea.

Ezaugarri linguistikoei dagokienez, “etengabe erabiltzen diren gaztelerazko partikulak” zerrendatu ditut. 12 urtetik 15 urtera bitarteko gazte hauen adibideak ugariak dira. **Eske** partikula da ugariena, bai gazteenen artean, baita zaharxeagoak direnen artean ere. Orreaga Ibarrek lexikalizazio bidean egon litekeela dioela aipatu dut lehenago ere, eta gure adibideak ikusirik arrazoi emateko moduan gara. Badira ezaugarri batzuk hiztun batek edo besteak gehiago erabiltzen dituenak, baina, hau zehazki guztiek erabiltzen dute eta askotan. **Osea** eta **aber** partikulekin ere berdin, hiztun guztiek eta maiz erabiltzen dituzte. Lehena, gehienbat azalpenak emateko lokailu gisa eta birformulatzailerik bezala erabili dute; bigarrena, berriz, kasurik gehienetan, ohartarazteko. Hitzetik hortzera darabiltzen beste partikula bat ya da: adostasuna agertzeko, nahiz “jada” adierazteko etengabe erabiltzen dute. Euskarazko jardunean oso integratuak dauden partikulak dira hauek.

En plan oso maiz agertu ez bada ere, kalean belarria jarriz gero, gazteen artean geroz eta ugariagoa dela konturatzen gara. Ez dago euskarazko esamolderik hori adierazteko, beraz, gaztelerazkoa erabiltzen dute zuzenean. **Pues** eta **asike** bezalako diskurtso antolatzaileak ere ez dira gehien agertu direnak, dena den, horregatik ez dira gutxiago erabiliak eta aipamen bat gutxienez merezi dutela iruditu zait.

Osea, **eske**, **aber** eta **ya** partikulek esaterako, euskarazko ordainak nahiko formalak direla esan daiteke, bai behintzat gazte-hizkerak duen bizitasunerako, eta beraz, gazteleraz hainbeste erabiltzen diren forma hauek darabiltzate.

Gaztelerazko esamoldeen atalean, adibide bakar bat topatu dut, pertsona bakar batek aipatu duena, **hora punta** da hori, eta euskarazko antzeko esamolderik ezagutzen ez duenez, gaztelerazkoa erabili du, azalpen osoa ez ematearren. Lexikoaren atalean ere adibideren bat badagoen arren, ez dago gehiegi. Horrek ez du esan nahi erabiltzen ez dituztenik, baizik aurretik aipatu bezala inguruneak eragin handia izan duela uste dut, bai inguruneak eta baita egoerak berak ere, batetik, ikastolan grabatu genuen, eta bestetik grabagailu batekin joan nintzaian lan bat egiteko beraien laguntza behar nuela esanez. Honek guztiak eragina izan duelakoan nago.

Azkenik, morfosintaxiaren atalean, hitz ordenari dagokionez, badira adibide batzuk non aditza hasieran agertzen den. Hau ere gazteleraren eragina dela uste dut. Hala ere kontuan hartu behar da, ahozkotasunean inprobisazioa nagusitzen dela gehienetan, eta beraz, hitz ordena ere askeagoa izan ohi da.

22-25 URTE BITARTEKOAK

Gazteenen diskurtsoan bezalaxe, hauenean ere **eske** eta **ya** formak dira gehien agertzen diren alternantziako batzuk. Gainerako partikulak ere, **osea**, **aber**, **pues** eta **asike** partikulak esaterako, adibide sorta bat bada forma bakoitzetik, gazteenek baino gehiago erabili dituztela esan daiteke. Gainerakoei dagokienez, antzeko erabilerak egin dituzte.

Esamoldeei dagokienez, ordea, adibide dexente topatu ditugu hauen jardunean. **Tema aparte**, **cara al público** edota **castellano básico**, esaterako. Horrelako esamoldeak erabiltzearen arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Kasu hauetan, **tema aparte** eta **cara al público** esamoldeen kasuetan, esaterako, gazteleraz eginiko esamoldeak dira, eta euskarazko ordainik ez dute, eta azalpenak saiheste aldera, gaztelerazko esamoldea erabili dute. **Castellano básico**ren kasuan, esan nahi zuenari tonu edo esanahi berezia eman nahi zion, grazia egiteko ere egin duela esango nuke nik, euskaraz “oinarrizko gaztelera” izango litzateke ordaina, eta horrek adierazkortasuna, bizitasuna kenduko lioke seguruenik jardunari.

Hitz ordenari dagokionez, maiz ageri dira aditza hasieran duten perpausak. Baina, hori aurretik esan dudan bezala, ahozkotasanaren ezaugarrietako bat da. Eztabaida-talde honetan, gainera, elkarrizketa oso arina eta erraza izan zen, lagunartean baitzeuden, beraz hiztunak eroso zeudela esan daiteke.

Azkenik, badira diskurtsoan zehar gazteleraz egin diren esaldi batzuk ere, hauek gehienetan beste norbaiten esanak edota nonbait irakurriak ziren esaldiak izan ohi ziren, eta zuzenean gazteleraz errepikatu dituzte hiztunek.

BI ADIN-TARTEEN ARTEKO KONPARAKETA

Bi adin-tarteen artean egon diren desberdintasunak nabarmenak dira, gazteenek alternantzia gutxiago erabili baitituzte helduenek baino. Dena dela, horri zenbait puntu erantsi behar zaizkio. Batetik, behin eta berriro aipatu dudan bezala, gazteenak ez zeuden benetako lagunarteko giroan, ikastolako liburutegian zeuden, irakasleek mesede bezala eskatu zien lan bat egiteko. Eta bestetik, gazteenen jarduna zailagoa izan zen, galdera eta erantzunetan mugatu zen ia, haritik tiratzea kosta zitzaidan batzuetan, beraz, grabazioa ere motzagoa geratu zen, 35 minutu ingurukoa. Helduenen grabazioa, ordea, ordubete pasatxokoa izan zen, haiek lagunartean zeuden eta nahiz eta ez geunden taberna batean, ez zitzairen oso zaila egin egoeran sartzea.

Dena dela, gazteenek ere alternantziak erabili zituzten euren diskurtsoetan, eta horien adibide ugari ikusi ditugu. Gehienak “etengabe erabiltzen diren gaztelerazko partikulak” gisa izendatu dugun atalekoak dira. Lehen esan dugun bezala, hauek gazteleraz ere asko erabiltzen diren partikulak dira, eta hiztunek normalki oso barneratuta dituzte. Ez dute ezer berezirik adierazi nahi, ez dituzte ez esanahia indartzeko edota arbuiatzeko erabiltzen, baizik ohituraz. Helduenek, berriz, horrelako adibideez gain, gaztelerazko hitzak edota esamoldeak ere gehiago erabili dituzte

Lan honetan agertzen diren datuen arabera, 22-25 urte bitarteko gazteen euskarazko jardunean gaztelera askoz ere gehiago txertatzen dela esan daiteke. Dena

dela, kalean belarria jarriz, nik ez nuke esango gauzak horrela direnik. Egoerak garrantzi handia du eta kasu honetan eragina izan duela iruditzen zait.

3.9 GAINERAKO LANEKIKO KONPARAKETA

Konparaketa honetarako, Karmele Etxaberen “Kode alternantzia lagunarteko hizkeran: Ordizia eta Zaldibia”, Amets Etxaberen “Kode alternantzia lagunarteko hizkeran”, Maddi Arangurenen “Azpeitiko gazteak eta euskara” eta Orreaga Ibarrenen “Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa” lanak ditut.

Lehen a Goierriko Ordizia eta Zaldibia herrietan burutu zen, eta bi herrien arteko konparaketa bat egin zuen, bi herrien egoera soziolinguistikoa ezberdina izanik, zer-nolako desberdintasun eta antzekotasunak zeuden ikusiz. Bigarren lanari dagokionez, Amets Etxabek Getariako gazteak hartu zituen abiapuntutzat, eta gazte getariarrek zergatik eta zertarako erabiltzen duten kode-alternantzia aztertu nahi izan zuen. Maddi Arangurenek Azpeitiko gazteek nola, noiz eta norekin egiten duten euskaraz. Azkenik, Orreaga Ibarrek Iruñerriko gazte jendearen hizkeraren ezaugarriak bildu eta aztertu nahi izan zituen. Nire lanean, berriz, Ibarrako gazteak hartu ditut abiapuntutzat ondoren hauen jardunean kode-alternantzia nola eta noiz gertatzen den aztertzeko.

Nire lanaren ondorioak, ez dabilta aipatu ditudan lan hauen ondorioetatik oso urruti. Kode-alternantziaren funtzioei dagokienez, Amets Etxabek Getarian egindako lanaren emaitzekin eta Karmele Etxaberen Ordizia eta Zaldibiako emaitzekin bat datoz Ibarrakoak ere. Kode alternantzia, geroago ondorioetan aipatuko dudan bezala, adierazkortasuna lortzeko, umorea txertatzeko edota beste norbaitek esandakoa errepikatzeke erabiltzen dute Ibarrako gazteek ere, edo baita zerbaiten esanahia areagotzeko ere. Maddi Arangurenek ere Azpeitiako gazteen jardunean, kode-alternantzia adierazkortasuna eta transgresioa bilatze aldera egiten zutela aipatzen zuen. Kode-alternantzia solasaldi informal eta formalen menpe dagoela dio Maitena Etxebarriak (2003, 14), Getariako gazteengan ere hori ikusi zuen Amets Etxabek, eta

Ibarrakoengan ere nabari da, ikusi besterik ez dago 12-15 urte bitarteko gazteen grabazioko datuak, egoerak berak bultzatuta hizkera formalagoa darabilte, eta interferentzia gutxiago atzeman daitezke beraien diskurtsoan.

Orreaga Ibarrek ere (2011:163) gazteek naturaltasun falta adierazten dutela dio, eta beraiek ere diskurtsoa gazteleraz eraikitzen dutela konturatu egiten direla, eta txantxak egiteko edota haserretzeko ziurtasunik eza nabarmentzen du. Bestalde, hizkuntza tekniko edo informatikoa erabiltzeko zailtasun lexikoak omen dituzten nafar euskaldun gazteek, Ibarrakoek ere (22-25 urte bitartekoek) aipatu dute ordenagailu nahiz telefono mugikorra euskaraz ezartzean kostatzen zaiela hizkuntza horretara ohitzea.

Oro har beste lanetan ateratako ondorioen antzekoak dira nik ateratakoak ere. Beraz, esan dezakegu, Euskal Herriko gazteek oro har joera berdintsuak dituztela, nahiz eta txoko bakoitzean euren berezitasunak izan.

4. ONDORIOAK

Egin ditudan grabazioetako jardunak aztertu ondoren ateratako ondorio orokorrak dira jarraian aipatuko ditudanak, nahiz eta aurreko atalean aurrerapentxo bat egin dudan. Eztabaida-talde horietan euskararen egoera, eta euskararekiko ditugun jarreraren eta aurreiritzien inguruan aritu ziren gazteak. Hortik euren diskurtsoa aztertzeaz gain, beraiek gure hizkuntzarekiko zer pentsatzen duten ere atera ahal izan dut. Hona hemen puntuz puntu atera ditudan ondorioak:

- Gazte hizkera azaltzeko garaian esan bezala, gure datuak aztertu ondoren, Ibarrako gazteen hizkera “nahasia” dela konturatu gara. Izan ere, euskara batuko hainbat hitz, euskalkia eta gaztelera, guztia nahastuta ageri ohi da. Horrek ez du esan nahi ordea, euskara ezagutzen ez dutenik, helduen grabazioetan guztiek dute EGA titulua, eta gazteenei dagokienez, berriz, hauek ere ikastolan D ereduari ikasi dute txiki-txikitatik eta euskaraz hitz egiteko eta idazteko gai dira inolako arazorik gabe. Dena dela, kontuan izan behar da idatzizko euskara eta ahozkoa oso desberdinak direla eta beraz, euskal gramatika menperatzeak ez du esan nahi ahozotasunean ere arau horiek beteko direnik.
- Gure aurrekoen eta gure euskara berdina al diren galdetuta, batzuk onartzen dute beraien eta beraien gurasoen hizkeren artean aldaketa antzematen dela, eta zer esanik ez aiton-amonen aldean. Beste batzuen ordez, berriz, ez dago alde nabarmenik. Esan beharra dago, beraien usteen aurka, Ibarrako hizkera, gainerako tokitakoa bezalaxe aldatuz doala. Gaur egungo gazteon hizkeran gaztelerazko hitz eta partikula ugari dago esaterako, jada nahi gabe ere esaten direnak, guztiz barneratuta baititugu. Eta Orreaga Ibarrak dioen bezala, zenbait lexikalizatzeko puntuan egon gaitetzke, baita mailegu gisa onartzeko moduan ere. Gaztelerazko alternantziez gain, lexikoan ere aldaketa egon badaude. Izan ere, bizimodua aldatuz doa eta horrekin batera izendatu beharreko gauzak ere aldatuz doaz. Garai batean nekazaritzatik bizi ziren, gaur egun ordea, nekazaritza baztertu eta teknologia berrien mundua dago pil-

pilean. Beraz, gure lexikoa alor horretara zabalduz doa, eta aurrekoena berriz atzenduz.

- Hasierako hipotesietan 22-25 urte bitarteko gazteei dagokienez, euskararekiko “begirune” handiagoa izango zutela aurreikusten nuen arren, datuetan argi eta garbi ikusi da kode alternantzia beraien jardunean ere etengabe agertzen dela. Beraz, hizkuntzaren aldaketatzat hartu behar genuke, eta ez adin zehatz batean gertatzen den errebelaziotzat.
- Euskarazko diskurtsoan txertatzen diren gaztelerazko hitz eta esamoldeei dagokienez, hori egitearen arrazoia ez da utzikeria soilik, gazte euskaldunek adierazkortasuna bilatzen dute sarritan euren kode-alternantziakin. Honakoak dira alternantziek betetzen dituzten funtzioak gure ikerketaren arabera: adierazkortasuna lortzea, umorea txertatzea edota beste norbaitek esandakoa errepikatzea, besteak beste. Euskararen gabeziak estaltzea da helburu nagusia, beraz. Gazteek beraiek ere onartzen dute, askotan euskarazko hitzak erabiltzea artifizio egiten zaiela, eta horregatik jotzen dutela gaztelerako ordainetara. Hala ere, badira zenbait gauza beraiek ere onartuko ez lituzketenak, eta adibideak ere ematen dituzte.

Euskarazko jardunean gazteleraren zantzuak geroz eta gehiago direla da atera dugun ondorio nagusienetakoa. Gainera, funtzioei erreparatuta, euskararen ahuleziak estaltzeko erabiltzen dela esan dugu lehenago ere. Beraz, tentuz ibili beharko dugu euskararen etorkizuna bermatu nahi badugu. Kode alternantziaren agerpena normala dela esan genezake, azken batean hizkuntza aldatuz doa, baina, gurea hizkuntza gutxitu bat denez, ez dakit zein puntutaraino ez den mehatxua izango.

5. BIBLIOGRAFIA

1. **Amonarriz, Kike.** (2008), *Gazte hizkerak-hizkera gazteak*, BAT 68, 167-183. (www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloak/PDF/15/Amonarriz.pdf)
2. _____ (2008b), *Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea*, HIZNETeko ikasgaia
3. _____ (2009), *XXI.mendeko euskaldunak. Nola aldatu(ko) diren gauzak kamarada!*, Zumaiaiko euskara zerbitzuak antolatutako hitzaldia. (<http://www.argia.com/multimedia/solasaldia/nola-aldatu-ko-diren-gauzak-kamarada>)
4. **Aranguren, M.,** (2012), *Azpeitiako gazteak eta euskara*, HIZNET, Hizkuntza Plangintzako Unibertsitateko Especialista.
5. **Crystal, D.** (2008), *Txtng, the gr8 db8*, Oxford University Press, Oxford.
6. _____ (2011), *Internet Linguistics*, Rotuledege,
7. _____, (http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik25_1_crystal_08_06/eu_crystal/adjuntos/David-Crystal.pdf)
8. **Esnaola, I., Illarramendi, A.** (2000), *Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa*, Hikhasi. (www.hikhasi.com/artikulu/542)
9. **Esnaola, I.** (1996), *Gazte euskaldunen lagunarteko hizkera hemen eta orain*, Udako Euskal Unibertsitatea.
10. **Etxabe, A.** (2005), *Kode-alternantzia lagun arteko gazte-hizkeran*, HIZNET, Hizkuntza Plangintzako Unibertsitateko Especialista.
11. **Etxabe, K.** (2010), *Kode alternantzia lagunarteko gazte hizkeran: Zaldibia eta Ordiziako kasuak*, HIZNET, Hizkuntza Plangintzako Unibertsitateko Especialista.
12. **Etxebarria, M.** (2003), *Español y Euskera en contacto*, Lingüística en la red, Euskal Herriko Unibertsitatea. (numero1_articulo_3.htm)

13. **Ibarra Murillo, O.** (2009), *Gazte hizkerari buruzko ohar batzuk*, EuskoNews 498 (<http://www.euskoNews.com/0498zBK/gaia49804eu.html>)

14. _____ (2011), *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

15. **Muñoa, I.** (2002), *Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? Kode-aldaketaren funtzio pragmatikoak*, BAT 42, 53-63.or.

16. **Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernandez, J.N., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L.V., Uranga, B., Bilbao, P.** (2010) *Soziolinguistika Eskuliburua*, Soziolinguistika Klusterra. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

6. ERANSKINAK

6.1 HIZTUNEN FITXAK

12-15 urte bitartekoak

Izen-abizenak: Jon Plazaola
Adina: 16 urte
Jaioterria: Ibarra
Amaren jaioterria: Leaburu
Aitaren jaioterria: Azpeitia

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: oso ondo

Aitak: oso ondo

Berak: oso ondo

Euskararen erabilera:

Amak: (ia)beti euskaraz

Aitak: (ia)beti euskaraz

Berak: gehienbat euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: (ia)beti euskaraz

Ikastolan: gehienbat euskaraz

Lagunekin: (ia) beti euskaraz

Kalean: gehienbat euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: euskaraz eta gazteleraz

Irratia: euskaraz

Egunkaria: euskaraz eta gazteleraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?

Liburuak: euskaraz eta gazteleraz

Musika: euskaraz eta gazteleraz (eta ingelesez)

Filmak: euskaraz eta gazteleraz

Izen-abizenak: Jone Beloki
Adina: 13 urte
Jaioterria: Ibarra
Amaren jaioterria: Ibarra
Aitaren jaioterria: Orendain

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: ondo
Aitak: ondo
Berak: ondo

Euskararen erabilera:

Amak: (ia)beti euskaraz
Aitak: (ia)beti euskaraz
Berak: (ia) beti euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: (ia)beti euskaraz
Ikastolan: gehienbat euskaraz
Lagunekin: (ia) beti euskaraz
Kalean: (ia) beti euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: euskaraz eta gazteleraz
Irratia: euskaraz
Egunkaria: euskaraz eta gazteleraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?

Liburuak: gazteleraz
Musika: euskaraz eta gazteleraz (eta ingelesez)
Filmak: gazteleraz

Izen-abizenak: Aimar Odriozola
Adina: 13 urte
Jaioterria: Ibarra
Amaren jaioterria: Tolosa
Aitaren jaioterria: Ibarra

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: ondo
Aitak: oso ondo
Berak: oso ondo

Euskararen erabilera:

Amak: (ia)beti euskaraz

Aitak: (ia)beti euskaraz

Berak: (ia) beti euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: (ia)beti euskaraz

Ikastolan: gehienbat euskaraz

Lagunekin: (ia) beti euskaraz

Kalean: (ia) beti euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: euskaraz eta gazteleraz

Irratia: euskaraz

Egunkaria: euskaraz eta gazteleraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?

Liburuak: euskaraz eta gazteleraz

Musika: euskaraz eta gazteleraz (eta ingelesez)

Filmak: gazteleraz

Izen-abizenak: Amaia Baztarrika

Adina: 14 urte

Jaioterria: Ibarra

Amaren jaioterria: Lizartza

Aitaren jaioterria: Eratsun

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: oso ondo

Aitak: oso ondo

Berak: ondo

Euskararen erabilera:

Amak: (ia)beti euskaraz

Aitak: (ia)beti euskaraz

Berak: (ia)beti euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: (ia)beti euskaraz

Ikastolan: gehienbat euskaraz

Lagunekin: (ia) beti euskaraz

Kalean: (ia) beti euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: euskaraz eta gazteleraz

Irratia: euskaraz

Egunkaria: euskaraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?

Liburuak: euskaraz eta gazteleraz

Musika: euskaraz eta gazteleraz (eta ingelesez)

Filmak: gazteleraz

Izen-abizenak: Tider Sarasola

Adina: 14 urte

Jaioterria: Ibarra

Amaren jaioterria: Tolosa

Aitaren jaioterria: Marruekos

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: oso ondo

Aitak: erdipurdi

Berak: oso ondo

Euskararen erabilera:

Amak: (ia)beti euskaraz

Aitak: erdaraz nagusiki

Berak: gehienbat euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: (ia)beti euskaraz

Ikastolan: (ia) beti euskaraz

Lagunekin: (ia) beti euskaraz

Kalean: (ia) beti euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: gazteleraz

Irratia: euskaraz

Egunkaria: euskaraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?

Liburuak: euskaraz eta gazteleraz

Musika: euskaraz eta gazteleraz (eta ingelesez)

Filmak: gazteleraz eta ingelesez

Izen-abizenak: Joseba Tobias

Adina: 15 urte

Jaioterria: Lizartza

Amaren jaioterria: Lizartza

Aitaren jaioterria: Ibarra

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: oso ondo

Aitak: nahiko gaizki

Berak: oso ondo

Euskararen erabilera:

Amak: (ia)beti euskaraz

Aitak: erdaraz nagusiki

Berak: (ia)beti euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: gehienbat euskaraz

Lanean, unibertsitatean: (ia) beti euskaraz

Lagunekin: (ia) beti euskaraz

Kalean: (ia)beti euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: euskaraz eta gazteleraz

Irratia: euskaraz

Egunkaria: gazteleraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?

Liburuak: euskaraz eta gazteleraz

Musika: euskaraz eta gazteleraz (eta ingelesez)

Filmak: gazteleraz

22-25 urte bitartekoak

Izen-abizenak: Amaia Pagola

Adina: 25 urte

Jaioterria: Ibarra

Amaren jaioterria: Elduain

Aitaren jaioterria: Tolosa

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: ondo

Aitak: erdipurdi

Berak: oso ondo

Euskararen erabilera:

Amak: erdia euskaraz

Aitak: erdaraz nagusiki

Berak: gehienbat euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: (ia)beti euskaraz

Lanean, unibertsitatean: gehienbat euskaraz

Lagunekin: (ia) beti euskaraz

Kalean: gehienbat euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: euskaraz eta gazteleraz

Irratia: gazteleraz

Egunkaria: euskaraz eta gazteleraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?

Liburuak: euskaraz eta gazteleraz

Musika: euskaraz eta gazteleraz

Filmak: euskaraz eta gazteleraz

Izen-abizenak: Ander Camarero

Adina: 23 urte

Jaioterria: Ibarra

Amaren jaioterria: Ordizia

Aitaren jaioterria: Burgos

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: ondo

Aitak: gaizki

Berak: oso ondo

Euskararen erabilera:

Amak: erdia euskaraz

Aitak: inoiz ez euskaraz

Berak: gehienbat euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: gehienbat euskaraz

Lanean, unibertsitatean: (ia) beti euskaraz

Lagunekin: (ia) beti euskaraz

Kalean: (ia) beti euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: gazteleraz

Irratia: euskaraz eta gazteleraz

Egunkaria: gazteleraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?

Liburuak: gazteleraz

Musika: gazteleraz

Filmak: gazteleraz

Izen-abizenak: Ander Muñagorri

Adina: 24 urte

Jaioterria: Ibarra

Amaren jaioterria: Tolosa

Aitaren jaioterria: Ibarra

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:

Amak: oso ondo

Aitak: oso ondo

Berak: oso ondo

Euskararen erabilera:

Amak: gehienbat euskaraz

Aitak: gehienbat euskaraz

Berak: gehienbat euskaraz

Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Etxean: (ia) beti euskaraz

Lanean, unibertsitatean: (ia) beti euskaraz

Lagunekin: gehienbat euskaraz

Kalean: gehienbat euskaraz

Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?

Telebista: euskaraz eta gazteleraz

Irratia: euskaraz

Egunkaria: euskaraz eta gazteleraz

Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?**Liburuak:** gazteleraz**Musika:** euskaraz eta gazteleraz**Filmak:** gazteleraz**Izen-abizenak:** Maider Otaegi**Adina:** 22 urte**Jaioterria:** Ibarra**Amaren jaioterria:** Usurbil**Aitaren jaioterria:** Albiztur**Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:****Amak:** oso ondo**Aitak:** oso ondo**Berak:** oso ondo**Euskararen erabilera:****Amak:** (ia) beti euskaraz**Aitak:** (ia) beti euskaraz**Berak:** (ia) beti euskaraz**Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?****Etxean:** (ia) beti euskaraz**Lanean, unibertsitatean:** (ia) beti euskaraz**Lagunekin:** (ia) beti euskaraz**Kalean:** (ia) beti euskaraz**Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?****Telebista:** euskaraz eta gazteleraz**Irratia:** euskaraz**Egunkaria:** euskaraz**Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?****Liburuak:** gazteleraz**Musika:** euskaraz**Filmak:** euskaraz eta gazteleraz**Izen-abizenak:** Miriam Amubieta**Adina:** 24 urte**Jaioterria:** Ibarra**Amaren jaioterria:** Lizartza**Aitaren jaioterria:** Azpeitia

Euskaraz hitz egiteko gaitasuna du:**Amak:** oso ondo**Aitak:** oso ondo**Berak:** oso ondo**Euskararen erabilera:****Amak:** erdaraz nagusiki**Aitak:** gehienbat euskaraz**Berak:** (ia)beti euskaraz**Hizkuntza ohiturak: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?****Etxean:** (ia) beti euskaraz**Lanean, unibertsitatean:** (ia)beti euskaraz**Lagunekin:** (ia)beti euskaraz**Kalean:** (ia)beti euskaraz**Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?****Telebista:** gazteleraz**Irratia:** euskaraz**Egunkaria:** gazteleraz**Kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen duzu?****Liburuak:** euskaraz eta gazteleraz**Musika:** euskaraz eta gazteleraz**Filmak:** gazteleraz

6.2 TRANSKRIBAKETAK

12-15 urte bitartekoak transkribaketak

Joseba: E ni Joseba naiz, Ibarran bizi naiz baño Lizartzan jaioa naiz, ta hamabost urte auzkat.**Jon:** E ni Jon naiz, Ibarrakoa naiz ta hamasei urte auzket, ta Uzturpe Ikastolan ai naiz ikasten.**Aimar:** E ni Aimar naiz, Ibarran jaio naiz ta Ibarran bizi naiz ta hamabi urte auzket.**Jone:** Ni Jone naiz, Ibarran jaio naiz ta hamahiru urte auzket.**Amaia:** Ni Amaia naiz, hemen bizi naiz Ibarran ta hamalau urte auzkat.**Tider:** Ni Tider naiz e: Ibarran jaio naiz hamalau urte auzkat ta Uzturpe ikastolan –ko ikaslea naiz.

Xxxx

Ni: Bueno ba esan dizueten bezela ba hoixe, izangoa pixkat erabileran galderak, e euskeran ingurun ze ohitura dauzkezuen, ze jarrera, ze iritzi. Bai? Ta lehenengo galdera izango a lagunarten nola hitzeitte'zue? Euskeraz, erderaz, bitan?

Jone: Euskeraz

Jon: Euskeraz

Joseba: euskeraz, lagun

Tider: normalen euskeraz

Joseba: lagun kanpotarrak balin bauzkeu erderaz hitzeite'ieu baño ia hasiye euskeraz hitzeiten...

Jon: hor nik uste parte hortan hobetu beharra aukeula e, kanpotarrakin da

Joseba: Bai

Aimar: Bai

Jon: hobetzea badaola

Aimar: baño askotan beraiek de erderaz erantzute'izue,

Tider: beti eotea lagunen arten erderaz baño normalen euskeraz hitzeite deu

Ni: ta etxen eta?

Amaia: E bai

Joseba: euskeraz, erderaz aitakin baño ia euskeraz ai da euskaltegia jute'a

Xxx

Ni: eta adibidez etorkiñak etortze'ianen zeatik hitzeitte'iozue erderaz

Joseba: beaiek ohituta daudelako beste beste erderaz hitzeitea, ya beste hizkuntza bat dakie ordun hobeto komunikatzeko ba

Tider: bai, beantzat komodogoa izatea normalen ze beak eztaki oso ondo euskera ta zuk, hastera poliki ta mantsotasun baten azkenen azkarrago izateko konbersazioa erderaz hitzeite'iozu ta listo

Ni: hoi erdalduna balin bada ezta?

Tider: hoi da hoi e bai

Ni: etortze baldin bada batenbat ba ba eztakit Marruekosetik adibidez? Eztaki ez euskera ez erdera

Tider: eztiot hitzeiten

Ni: aurreneko hitza Aimar?

Aimar: euskeraz

Ni: Euskeraz?

Joseba: bueno segun, saiatu in beharko zan

Jon: hombre, euskeraz beti ez? In beharko litzeke baño eztakit zeba beti erdera jotze deu

Ni: erdera jotze'zue?

Jon: eztakit

Ni: kurioa da, ez baldin baki xxx

Jon: baño saiatu bar dao euskeraz ze e guk beti euskeraz hitzeite badeu gure arten beake beak saiatu beharko'u gure kultura zeatzen ez? Ezteu guk akoplatu beharko berea baño bueno. Euskeraz in beharko litzeke bai nik uste

(beste irakasle bat sartu da)

Ni: e euskeraz ai zeatenen zuen arten ze erabiltze zue e zuen hizkera o batua? O...

Amaia: Normala gurea

Joseba: gure hizkera

Ni: bai?

Joseba: Baño adibidez beste leku batzutako jendekin ba haste zea euskeraz baño batua gehio ite'zu

Tider: Bai hitz batzutan

Ni: ta ikastolan da?

Joseba: normal

Aimar: normal

Ni: ta aurkezpenak eta?

Denak: gurea

Ni: ordun batua noiz erabiliko zendueke

Tider: según

Xxxx

Ni: zuen arten hika?

Joseba: bai

Tider: ez

Aimar: oso gutxi

Joseba: batzutan

Jon: tarteka

Ni: (*Josebari*) zuk zeñekin hitzeitte'zu

Joseba: eske segun eske batzuk...noizbehinka atea ite zaizu hikaz hitzeiteun beste pertxona batekin...atea ite zaizun gauza bat da

Ni- ta nik hitzeingo banizu hika?

Joseba- ez...oi diferentea da enizun erantzungo hikaz normal erantzungo nizun

Ni- normal zer da...

Joseba- nik hitzeiteten bezela

Ni- zuka? Ta zeatik?

Joseba- eztakit...berez neskana diferentea da!

Ni- a horta nijoa

Jon- hoi ba

Ni- zeatik?

Jon- jo ba nik behintzat iñoiz eztet ikasi...

Joseba- Neskana eztakitelako...

Jon- oso gutxitan ikusi'et neska ta neskak mutiyei igual bai baño mutiyak neskai hika

Ni- ta zuek zeatik eztezue hitzeitten

Joseba- eztiguelako erakutsi, eztiguelako erakutsi

Jon- jakin bai baño...

Ni- eta mutiyana erakutx'izue?

Joseba- bai zoze bai

Jon- nik uste bik antzekok diela xxx

Joseba- baño eske mutiyak, prolema da mutillana gehio entzue'ala neska baño

Jon- Bai

Ni- hoi da eztezelako hitzeitten. Ezteulako hitzeitten

Joseba- a

Ni- (*neskei*) ta zuek zeatik eztezue hitzeitten hika

Tider- nik eztakit

Jone- nik re ez

Ni- eztakizue

Amaia- ez

Ni- mutiyana eztare?

Tider- aber zerbait bai baño enaiz kapaza konbersazio bat mantentzeko

Ni- zuk Joseba ze hitzeittehzu txikitatikan?

Joseba- eske Lizartzan bizi giñanen han denak hitzeite'zuen hikaz, baño adibidez Ibarra etorri nitzenen diferentea da hika han pixkat diferentegoh itzeite'ue

Ni- ta zuk zein ibiltze'zu hemengoa o hangoa o dena nahastuta o

Joseba- hemengoa ya ohituta

Ni- aber zuek ibiliko zeate sare sozialetan tuenti ta facebook whatsapp twitter

Amaia- bai

Ni- euskeraz o erderaz

Joseba- euskeraz

Aimar- euskeraz

Ni- bai? Denetan?

Jon- bai

Tider- ez, twitter ez, nik twitter erderaz daukat

Joseba- nik twitter de euskeraz nik dakitela

Ni- baño zuek idatzi?

Tider- idatzi euskeraz

Joseba- whatsapp tuenti dena euskeraz

Tider- idatzi euskeraz baño gero hizkuntza jarri bar bazu twitterrekoa edo ba nik twitter erderaz daukat bestek euskeraz whatsapp bezela eo

Joseba- jode nik de

Jone- jo nik re tuenti euskeraz baño twiter erderaz osea tuenti erderaz daukat

Aimar- nik tuenti euskeraz

Ni- baño idatzi euskeraz itte'zue zuek

Denak- bai

Ni- denakin?

Jon- nik bai behintzat

Tider- ez denakin nik ez

Ni- zeren arabera

Tider- Tolosako lagunekin edo Ibarratik kanpo hola

Joseba- ekipoko batzukin

Tider- segun eske segun ze jendek erderaz hitzeiten bau nahiz ta euskeraz jakin nik normalen erderaz hitzeite'iot

Ni- ohitturagatik

Tider- bai izangoa

Joseba- nik ekipoko batzukin

Ni- nun ibiltze zea?

Joseba- Tolosan Hirukideko nahiko daude ta han gehienak erderaz hitzeite'ue ta whatsapp-en ta hola erderaz hitzeite baue ba nike erderaz erantzute'iet

Ni- erderaz noiz ta zeñekin itzeite'u? Ibarran ta Tolosan ta... ze iruitze zaizue. Esan nahi det, zuen edadeko jendek erdera erabiltze'u

Joseba- bai Hirukidea jute'ianak

Jon- Hirukidekok

Amaia- bai

Tider- eta Samaniegoa jute'ianak ebai e

Joseba- baño gutxigo

Tider- Tolosan behintzat gure edadekon arten nabaria da e erderaz hitzeitea. Laskoraiñekok pixkat salbatze'ia baño Irukide ta Samaniegok ez

Joseba- Orixen batzuk itzeite'ue erderaz baño eske Hirukiden denak

Tider- bai baño oso gutxi dia

Ni- e zuek euskera erabili ezakezuen, eta hemen aittu'izuet, xx euskera erabili ezakezue egoera batzutan, eta batzutan eztezue erabiltzen. Ulertze'iazue galdera?

Joseba- Ez

Ni- zeatikan eztezuen erabiltzen. Ez? Zuek esan dezue hemen adibidez e twitterren eta norbaitek euskeraz o erderaz e hitzeitten baizue eo idazten baizue zuek erderaz erantzute'iozuela

Tider- bai

Ni- Zeatik?

Tider- Eztakit, ohitura

Aimar- ohitura

Ni- ta saiatze zeate, euskeraz hitzeitten?

Joseba- e: ez

Tider- baño ya ohitura bezela atea ite'a, nei behintzat.

Ni- eta kalen? Badao egoeran bat igual euskera erabili ezakezuen eta eztezuena erabili...

Joseba- eske segun ze pertsona dauden aurren. Nei, uste bat bakitela-bakila euskeraz baño erderaz hitzeite zial-hitzeite'itela beak nei, erderaz hitzeite't beakin. Nik be-be-bestei de erderaz hitzeite'iot. Eske hoi da problema.

Ni- a prolema da...

Joseba- bai

Ni- zeatik?

Joseba- ba berez euskeraz hitzein beharko genuke denak

Ni- zuek? Ze esatezue?

Jon- nik ia denakin euskeraz nik dakitela behintzat

Aimar- baño erderaz hitzeite bazu erderaz erantzutea normalena, bestela euskeraz.

Ni- Normalena da?

Xxx

Aimar- baño beak erderaz hitzeite bazu da beak erderaz nahi dula hitzein bezela, ordun erderaz erantzute'iozu. Baño esan nahi det al dezunen euskeraz hitzein ba euskeraz hitzeite'iozu

Joseba- problema da euskeraz dakiela baño eztuela hitzeiten

Tider- eztue nahi hitzein, eztia ezta saiatzen asko

Joseba- eske ya ohituta bazaude erderaz hitzeitea ta ba oain esate'iozu euskeraz hitzeiteko eta lotsa emate'io, ta gañaz gaizki hitzeite'ue

Tider- oso, bastante berde daude batzuk behintzat

Ni- aber, e egunerokon kalen, etxen, nola hitzeite'zue, oain ai zeaten bezela?

Jon- bai

Joseba- bai

Ni- Zuek aldeik sumatze al dezue zuen gurason hizkeran eta zuen hizkeran?

Jon- bai

Tider- bai, eta piya bat

Ni- bai? Ta zertan

Tider- joe beaiek baño nere kasun ta bastanten kasun gure edadekotan, euskeraz hitzeite deu baño erderakada asko botatze'iteu, nere kasun ta gure edadekon kasun behintzat bai. Ta gero fijatze zea ta nere amak adibidez eztu hola hitzeiten. Eztu esaten "ze foto politta" esate u "ze argazki politta" adibidez. Eztakit zeba guk erdera-erderakada bastante botatze'iteu.

Joseba- nik aman antzeko. Aitana ez, aitak erderaz hitzeite'u.

Tider- oso ondo Joseba

Ni- Zuek? Aimar ta Jone ta?

Aimar- e, Tiderrek esan duna beraiek e garbigo bezela, guk tarteka hola erderaz ta hola gehio hitzeite deu.

Ni- hitzak?

Aimar- hitzak bai

Jone- bai, esaldik ez

Ni- eta atton-amonan alden?

Aimar- berdiña

Joseba- hoi ya

Aimar- amonak tarteka hikaz ta ola

Ni- bai ika...?

Tider- Bai

Aimar- bai

Joseba- amak ta amonak hitzeite'ue hika

Jon- gure familin ia denak, ta ordun, ai-aitez ez belarrie ittea azken fiñen aitzekin, asike...

Ni- gurasok hika hitzeitte'izue zuri?

Jon- bai, batzutan bai

Ni- anaiakin? Zuk anai bat daukezu ezta?

Jon- bai batzutan, oain ya gutxixeo e baño, bai, batzutan bai.

Ni- Ibarran zemuz hitzeitte'a euskeraz?

Tider- dexente

Xxx

Ni- Amaia ta Jone adibidez, ze iruitze zaizue?

Amaia- bastante ondo

Joseba- hobeto hitzeite...

Tider- Tolosan alden da behintzat bai

Ni- Nun baño hobeto galdetzea nijoan, Tolosan baño hobeto?

Denak- bai

Ni- zertan antzemate'zue hoi?

Tider- ba han ohitura geio daukate erderaz hitzeiteko

Xxx

Ni- ta nun baño okerrago adibidez?

Tider- ba herri txikigo...

Jone- ya herri txikigo...

Aimar- ba Elduaiñen baño okerrago

Ni- bai? Desberdintasunik antzemate'zue?

Joseba- jo...

Aimar- han hika ta ola

Joseba- herri txikigok!

Ni- bai baño txikia izanagatik...

Joseba- ya baño ohituta daude ya han! Ta han eztaikit diferentea da

Ni- ikastolan zuzentze al dizue euskeraz hitzeitte'zuenen?

Denak- bai!

Ni- zer adibidez?

Aimar- "ikusi'zut" eta "ze ikusi'iazu" denbora guztin

Jone- ya.

Tider- "gauz bat", "gauza bat" hoi de bai. Komunea jun...

Jone- "komunea jutea dao"

Joseba- "komunera yoan al naiteke"

Ni- nola moldatze zeate hobeto, euskeraz, erderaz...

Denak- euskeraz!

Ni- bitan berdin...

Joseba- euskeraz askoz e hobeto

Tider- ni erderaz... puf

Joseba- erderaz ni ya ohituta naolako baño alare gaizki

Aimar- komodogoa ite'a euskeraz hitzeitea

Tider- errexagoa

Ni- ohittugo zaudetelako, gehio erabiltze'zue...

Ni- Ibarren zenbat euskera hitzeittea, geo ta gehio, geo ta gutxigo...

Joseba- geo ta gutxigo!

Jon- bai.

Joseba- pation notatzea umen aldetik

Tider- bai

Jon- bat erderaz haste'a ta geo: seittu itte'ie

Joseba- plazan e bai notatzea, adibidez Josinazioko zean, Aimarren tabernako guraso askok de beaien arten erderaz hitzeite'ue, bat- batek erderaz hitzeite'ulako ta ordun denak erderaz hitzeitea bultzatze'itu

Tider- baño umen arten ya oso nabaria da gaur egun. Jolasteko garaian da dena erderaz izate'a

Amaia- bai ta ikuste'ituzten marrazki bizidunak ta...

Joseba- ya

Tider- gure garaian EITB zan, ordun euskeraz zan baño gaur egun...

Joseba- "klan" ta

Tider- "Klan" ta beste batzuk dia, ta hoik erderaz diane horrek de bai asko ite'u

Ni- baño hitz sueltok edo...

Tider- ez ez ez ez...

Joseba- ez ya... konbersazioa

Joseba- gañez geroz ta kanpotar geio etortzen hasi'ya oain ta ordun umek de kanpotarrekin erderaz

Ni- nik alderantziz zala uste nun, badaude oañ umen gurasok lehen ikastolako ikasle izan zianak, eta nik uste nun ba hoiek euskaldunak zianez, gaña bi guraso euskaldunak errexago...

Aimar- baño nik ustet etxen da euskeraz baño geo etortze'ia honea ta kanpotarra ta horrek erderaz hitzeite'u ta ba erderaz haste'ia

Ni- bai e?

Ni- ze in behar litzeke

Aimar- euskeraz hitzein

Ni- hitzeiñazi izangoa... ta nola?

Jon- eztakit

Denak- puf

Ni- eztakizue...

Ni- zuek ze uste zue euskera galtzen ai dala?

Joseba- bai.

Tider- bai

Aimar- bai

Ni- bai?

Joseba- hemen ikuste'a zer... Tolosa baten

Ni- jo Tolosakin fijazioa daukezue e...

Joseba- ta lehen esate zuenez Donostin de gehio hitzeite zala euskera baño ya ezta entzuten, lehen esate zuenez...

Tider- oain Donostiko gure edadekon bat

Joseba- lehen esate zuen Donostin euskera gehio entzute zala ta oain jute zea Donostia ta iñor eztezu entzuten

Tider- oso gutxi

Aimar- ta dendata ta jute zea ta dena erderaz ite'izue denda askotan

Tider- bai hoi egia da arropa dendatan ta

Joseba- ya

Tider- oain Donostin haste bazaizu gure edadekon bat euskeraz ba nei behintzat asko txokatzte'it, nei normalen erderaz hitzein izan diate

Ni- eta Tolosan eta...

Joseba- denda guztitan, ya ohituta dau- eztakite euskeraz jakin baun eo erderaz jakin baun ta ordun proba-e-probabilitate gehio daude erderaz jakiteko ordun erderaz esate'izue dena

Tider- jute zea Tolosako goxoki denda bi nose Koala ta Chuckyta ta an biak erderaz hitzeite'ue

Ni- ta zuek beaiei?

Aimar- eztieu hitzeiten

Jone- ya

Aimar- bestela euskeraz. Lehenengo euskeraz ta geo ya ikuste bazu ezetz ba erderaz

Ni- nola ikuste zue euskeran etorkizuna

Jone- iyun

Aimar- ba geo ta okerrago

Jon- martxa hontan gaizki

Ni- pesimistak zeate e...

Ni- zuek neskak, ze esate'zue?

Denak- okerrea

Ni- galtzen ai dalako geo ta gehio?

Joseba- plazan ikuste'ana ikusi ta gero

Jon- jakin berez gehienak bakie baño geo ibili zenbatek ite'uen

Ni- bueno orta iritxi gea ezta? Oain ikastolakin ta suposatze a jende gehienak badakila, baño oain erabiyera bultzatu behar

Denak- bai

Joseba- ta geo ikuste'a andereñok eta asko esate'uela e bai guk kanpotarrei euskeraz in beha'ieula baño gero be-beaiek dia lehenengok gelatan erderaz hitzeite'uenak

Tider- bai hoi egia da

Joseba- ta eztiue esaten ezer

Ni- ez al diezue esaten!

Ni- aber, planteatuko izuet, kuadriyan gaude ola, denak euskaldunak gea etortze'a bat erdalduna ze ingo deu?

Joseba- denak erderaz hitzein

Ni- zeatik?

Joseba- kanpotar horrek o euskeraz eztakin horrek obligatze'igu denai erderaz hitzeitea beakin eta

Ni- eta euskeraz itzeingo bagendu?

Joseba- etzun ulertuko!

Ni- edukazio txarrekoa da?

Joseba- ez ze gu gure hizkuntza ai gea azken fiñen bultzatzen. Ta beak re ikasi beharko'u gure hizkuntza zein dan

Ni- zuei ze iruitze zaizue?

Jon- gu harea jungo bagiñeke ikasi in beharko genuke ez?

Joseba- ya

Aimar- ite deu bat datorrenen berria bea amoldatu beharren gurea, gu amoldatze gea ta oi ere eztaola ondo

Ni- eztaola...?

Aimar- osea eztaola ondo, beak euskeraz ikasi beharren guk erderaz hitzeite badeu beak iñoiz eztu ikasiko ta ordun ba euskeraz hitzein ta pixkat esplikatzeko ba igual erderaz baño berez euskeraz

Ni- baño imajinatu gaizki hartze'ula, zer da edukazio txarrekoa?

Aimar- ez guk de gaizki hartzea aukau!

Ni- ya, hola jartze bagea ezta?

Ni- ordun bueno, iruitze zaizue, ze iruitze zaizue euskeraz hitzein behar litzekela?

Denek- bai

Ni- gehiengoa balitz ez?

Denek- bai.

Ni- kultur- kulturai buruz adibidez, zuek irakurri ta nola itte'zue euskeraz...

Jone- erderaz

Tider- Eztet irakurtzen

Joseba- Eztet irakurtzen

Jon- Gehiena euskeraz

Joseba- baño oitura... euskeraz errexago ite zait euskeraz irakurtzea erderaz baño

Tider- A nei ez, nei erderaz pixkat errexagoa

Jone- Nei erderaz... o bai

(DENAK BATERA ARI DIRA HIZKETAN, EZ DA OSO ONDO ULERTZEN)

Tider- Nei euskeraz batzuk...

Joseba- ya baño nahiago't, lehenago hartuko nuke euskerazko bat erderako bat baño

Jone- nik ez.

Ni- Zuk amaia?

Amaia- Biak, eztakit

Ni- berdin zaizu euskeraz irakurri, erderaz irakurri

Amaia- bai.

Ni- Ta zeatikan esate'zue adibidez euskeraz errexago?

Jon- Ba, hitzeite-eztakit, ulertu-, telebistan ta re beti euskeraz ta ordun antzekoa da ez? Aitu o irakurri

Ni- Ordun zuk telebista re euskeraz ikustezu, zuek ebai?

Aimar- Gehiena bai

Jone- Ez.

Ni- Neskak ez... Neskak erderaz, mutillak euskeraz

Joseba- aitak erderaz, baño nere aita daonen e halare euskeraz jartze deu, euskaltegia zertako jute'a bestela

(BARREAK)

Ni- beharko ikasi zuen etxen!

Ni- ta zuek erderaz zeatikan

Tider- eztakit pues serie gehio daude

Xxx

Tider- Eztakit o gustatze zaizkigun...

Amaia- kanal gehio daude

Aimar- aukera gehio badao e bai

Ni- eta-eta liburutan e

Jone- aukera gehio askoz

Ni- baño geo ta-euskeraz e geo ta gehio dao

Tider- bai

Ni- zuei adibidez, "Harry Potter" irakurri'zue?

Joseba- Ez

Tider- Ez

Aimar- pelikula nik bakarrik

Ni- e liburu bat e euskeraz eta erderaz baldin badao zein aukeratze'zue

Jone- Erderaz

Tider- según

Xxx

(BARREAK)

Tider- eske según, según ze liburu euskeraz ulertze'zu ta hola baño

Jone- baño beste batzuk

Tider- eske beste batzuk ezin dia!

Jone- ya euskeraz ezberdiña eske eztakit

Tider- Euskeraz ezberdiña daukea batzuk eske oso xxx zait. Nik behintzat eztet ulertzen batzutan

Jone- ya nik re

Ni- ta ordun erderaz aukeratze'zue

Jone- Tider: bai

Tider: bo irakurtze-irakurri behar bada liburu hoi

Ni: Musika?

Aimar: ingelesez

Jone: ingelesez

Ni: Bai?

Jon: euskeraz

Jone: bueno euskeraz e bai

Tider: eta erderaz

Jonek: hiruak

Tider: hiruak

Jon: erderaz ta hola bai baño gehiena euskeraz

Joseba: euskeraz adibidez, eske según ze talde dan, denetik euskeraz, erderaz, ingelesez

Ni: zuk ingelesez esan dezu Aimar, zeatik iruitze zaizu

Aimar: nik musika entzun, musika entzun eztet iten baño esan nahi det adibidez Gaztea jartze bazu gehiena ingelesez daukazu ordun entzutekotan ingelesez

Ni: eta zuk- eta zuek musika eroste'zue adibidez, esan nahi det CD bat

Joseba: ez

Tider: bai

Ni: bueno edo jetxi e, etzait inporta

Tider: jetxi

Ni: a hoi bai

(BARREAK)

Ni: entzute'zue, irratiz aparte musika entzute'zue

Joseba: bai

Aimar: gutxi

Ni: e denetikan?

Jone: bai

Joseba: Bai

Tider: denetik ez

Jon: bai

Tider: nik estilo batzuk dauzkat

Ni: bueno hizkuntza aldetik e

Tider: a

Xxx

Tider: bai bai

Denek: bai

Ni: adibidez irratia piztutze'zue ta ordun zuk esan dezuna, zuk Gaztea jartze'zu ta ingelesez gehiena, zeatik?

Tider: ps eztakit

Joseba: eske nik irratia eztet pizten

Aimar: eske Gaztea re eztue iten en plan kanta oain dauden famatunak edo? ta maioria kanpokok izate'ia ezkie euskaldunak izaten

Jone: hoi da

Ni: ta zuek gero eredu bezela igual hoi daukezue? Esan nahi det euske- Euskadi Gaztea daukezue eredu bezela, edo bueno ba erreferentzi bezela ta musika gero hortikan hartze'zue?

Aimar: gustatze bazait bai

Ni: hoi da

Joseba: youtubetik

Ni: youtubetik? Bai youtubetik baño eskatu itte'iozu ya, ze eskatze'iozu youtubei?

Joseba: ez azaltze zaizkizunak jute'zea ematen dauden abestik, osea youtuben daude gehien ikusitakok, ordun jute'zea gehien ikusitakota ta beidatzen jute zea ta gustatze zaizuna ba jetxi ite'zu

Ni: ta zein izate'ie?

Joseba: inglesezkok

Ni: earki, bueno, pixkat galderak hok zian

Tider: zenbat falta da klasea bukatzeko?

Amaia: hamar

Ni: eztakit, zuek ze ingo zendueke adibidez musika kontu horrekin, buelta emateko? Euskal musika sustatzeko?

Jon: adibidez Gaztean ta holako zeatan euskal kantu gehio jarri

Tider: bai

Ni: jartze'itue batzuk ez?

Jon: bai baño hobeto itea nik uste badaola, gehio jartzea badao

Joseba: jartze'zu Gaztea ta emate'u ya hemengo-hemengo abestik jartze'ituela baño azken fiñen dena

Jon: ba nik jartze'tenen inglosez ta hola eote'ie denak asike eztakit

Ni ordu-ordutan e izango'a ez?

Jon: bai hoi re bai, arratxalden, eo eguardi alde a eo gauen... Hora punta eo esate zaiona.

Ni: ikastolan atzerritar asko daude?

Aimar: bai, geo ta gehio, oain dala bost urte eo hola etzeuden kasi

Jone: ez

Ni: gela bakoitzen bat bai?

Denek: bai

Joseba: guren bi

Ni: zuenan bi?

Tider: ta guren jun da etorri ta bastante in dia ez?

Aimar: bai guren e bai

Ni: eta horrek aldatze' u zuen ingurua?

Amaia: bai pixkat bai

Joseba: ta lehen hiru

Ni: hiru zeuden?

Tider: segi hola Joseba

(BARREAK)

Ni: kontatzen ai zan

Ni: ta hizkuntza aldetik e bai aldatuko' u suposatzet

Denek: bai

Ni: ze maya desberdiñak eukiko' itue

Joseba: ya guren beste, zea gero beaiek beste gauza bat ite' ue. Guk ezteu beaien berdiña iten. Ordun beaiek gela-gela berdiñen gaude baño askotan beste gela batea jute' ia edo bestela beaien lanak ite' itue ta esplikatze' ie xxx ta klase guztia iten pasatze' ue.

Ni: ta geo klasetik kanpoa?

Tider: normalen ezgea, ni enaiz hitzeiten normalen klasetik kanpoa. Ta asko aldatze' u talde lan bat in behar dan garaian e atzerri-e kanpoko bat etortzen ba tokatzen bazaizu talde ya normalen behintzat erderaz hitzeite' zue talde hortan ta horrekin beti asko kanbiatze' a

Joseba: normalen ez beti!

Jone: ya

Tider: ta gero Josebak esan duna esate' igue guri ez hitzeiteko erderaz, baizik eta euskeraz ahalegintzeko hitzeiten eta xxx bo ikasteko beak eztakit ze, baño proiektun bat edo presentatu behar bau edo beai erderaz uzte zaio presentatzen.

Ni: ya

Tider: ordun, eztakit.

Ni: ezta berdiña entzutea edo hitzeittea ezta?

Tider: ya

Ni: azkenen zu re inglesakin ai baldin bazea, inglesa ikasten, ulertze' zu baño gero proiektu bat aurkeztu? Inglesez? Hombre, bizi guztiako etzaio utzi behar euske-o erderaz aurkeztu, baño hor gero beraiek, bakoitzan gauza izango' a.

Tider: guk klasen daukauna berez Lekeitiotik etorri' a, berez baki euskeraz

Amaia: baño eztu hitzeiten

Tider: eztu hitzeiten eta dena erderaz ite'u. Ariketak erderaz ite'itu, dena erderaz ite'u

Ni: nungoa da berez?

Tider: Saharakoa da baño bizi izan zan

Amaia: aurrena Españan nunbaiten ta geo Lekeition da gero honea etorri zan

Joseba: Durangon e bai

Amaia: bai Durangon

Ni: oseake ya Euskal Herrin urte batzuk badamazki

Tider: bai, hoi ba

Ni: igual jakingo'u hango euskera

3.10 22-25 urte bitartekoen transkribaketak

Ander.C.: Ni Ander Camarero naiz Ibarran bizi izandu naiz ba hamalau urtez edo hola, gero Tolosan bizi izan naiz, beti Uzturpe Ikastolan, ta hogeita hiru urte auzkat.

Ander. M.: Ni Ander naiz, Muñagorri, eta hoita lau urte auzket, Ibarran bizi izandakoa ba iya bizi osoa, azkeneko bi urte Berastegin bizi'etela.

Amaia: Ni amaia Pagola naiz, hogeita bost urte dauzkat, Ibarran bizi naiz, urtebete kanpon eon nitzen, e ikaslea naiz eta lana ite't. Bai ikaslea naiz.

(BARREAK)

Miriam: Ni Miriam Amubieta naiz, Ibarrakoa baita re ta hogeita lau urte auzket. Ta momentu hontan e baita ikaslea naiz, bukatzen.

Maider: Ni Maider Otaegi naiz, Ibarrakoa baita ta hogeita bat urte auzkat eta, hoixe, ikaslea naiz baita re.

Ni: bueno, esan dizueten bezela ezta beste munduko galderak. Ba aurrenekoa adibidez botako'izuet eta zuek erantzute'zue. Lagunan arten nola hitzeite'zue, euskeraz, erderaz?

Maider: nik euskeraz

Miriam: guk re baita guziz euskeraz. De hecho ni goatze naiz konprobatu'a behin etorri zan gure kuadriya eztaikit zeba riojano bat eta goatze naiz hitzein behar genula denak erderaz hoi zeolako, ta zan como haste giñen erderaz *ba ba ba baaa* eta gero euskera sartze genula asike hor konprobatu zan denak euskeraz hitzeiteko ohitura daukeula.

Amaia: bai, euskeraz hitzeite deu baño batzutan nik erdera-erderaz iteko joera eukitze't, batzutan segun eta zenekin naon, kuadriyakokin ez baño beste ingurune bateko lagunekin balin banao ba igual bai.

Ander.M.: nik re hoixe esan behar nun. Launarten arabera, nik betiko kuadriyekin erderaz itet tope, gehienak euskeraz jakinda, baño adibidez ba bueno beste batzuket elkartze naizenen etzait ateatzan, ez, launarten arabera euskeraz edo erderaz.

Ander.C.: guk lagunarten euskeraz hitzeitan deu beti, bakarrikan gero ba beste ezagun batzuket daukazu ba erderaz jotze'zula errexago.

Ander.M.: ohitturan arabera

Ander.C.: gure kuadriyan e jendea kanpotik etorri'anen zaya ite zaigu talde ezta ezta erderaz hitzeite'a. Ta alde batetik arazo bat da ez, erderaz kostatzea, nahiz eta erderaz oso ondo jakin denak. Bai kuadriya guztik euskeraz.

Miriam.: bai.

Ni: e euskeraz ai zeatenen nola hitzeite'zue euskalkin o batuan o...

Ander.M.: ez ez nik behintzat e euskalkin nahi gabe eta batzuket hika, gaizki baño hika, ez baño bai.

Ander.C.: bai, ekipoko batzuket ba nik baukat ba hika o joera baukat

Ander.M.: batzuket euskeraz ta gañea hika, bai, nik bai behintzat.

Ni: osea ze hitzeite'zu hika lagun zehatz batzuket?

Ander.M.: bai orokorren bai hoi da batzuket, ta, bai hoi da beste eztao beste arrazoiyik aldatzeko. Batzuket bauzket, ya ezta ezta zeatik ba

Ander.C.: ba beaiek ite baizue

Ander.M.: hoi da haik daukealako ohitura denboa guztin hika hitzeiteko ez. Ordun ba zuk re ba gaizki baño ni nahi gabe amoldatu ite naiz ta hika haste naiz.

Miriam: nei inbiria emate'it, nik ezta ezta hika iten ta beti inbiria izandu'it. Guk ezteu, ezta ezta zeba neskak eztaukeun ohitura hikaz hitzeiteko. Gutxigo eta guk eztaukeu ohituraik.

Amaia: guri ezta ez diguelako hika hitzein

Ander.M.: hoi da nik re hika hitzeite'tenen hitzeite't mutiyentzako zuket ai balin banaiz mutiya e mutiyai bezela hitzeingo'izut ze nik hika neskantzako ezta ezta adibidez, eske hoi ba ezta ezta.

Maidar: nik adibidez e baita beti neskakin baño e baita esate'zuna segun zeñekin bauzket konkre- osea pertsona konkretu batzuket, ba batzutan hika hitzeite deula. Baño da en plan ba katxondeon bezela esate deula ba hika hitzein bar deu ta baño batzuket bakarrik e osea kontatuta bi-hiru, baño bestekin ya euskeraz euskeraz euskalkin. Osea batuan nik ez

Ander.M.: nik batua oain hasi naiz erabiltzen adibidez lanen nahi gabe ateatzan zait baño...

Ni: umekin da?

Ander.M.: umekin umek batun hitzeiteko krixton ohitura aukea. Eta, eta beste irakaslekin de bai ba irakaslen arten egie esan batue dao zabaldua ta ni oain nahi- egie esanda nahiko ondo, ateatze zait, batun ai naiz asko hitzeiten

Ni: osea irakasle...

Ander.M.: irakaslen arten baita re dao ba

Ander.C.: xxx

Ander.M.: baitare igual balin bazaude irakaslen e talde haundin eo hola elkartuta pues batuan. Gero badaude batzuk ba, ba herri txikitakok ta hola, en plan Orendain dau Orendaingoa dao bat, beste bat Alegikoa, haikin hika. Baño bestela batuan normal, ta umekin eta erabat.

Amaia: ta gero lagunakin eztezu iñoiz batuan hitzegi-hitzeiten? Nei pasatze zait. Nik lanen batuaz hitzeite't ta gero hauena jute naiz ta batzutan batuaz hitzeite't

Miriam: "bai hori da" eta geatze zea "Pagola ze ai zea esaten!". "Hori esan genuen moduan..."

(BARREAK)

Amaia: bai ateatze zait eta esate'it "azento nekatur daukazu"

Miriam: bai baño emate'u xxx "kaixo arratxalde on"

(BARREAK)

Ander.M.: nei oaingoz behintzat ez

Miriam: nik adibidez eztauket ohitura hoi euskera batun... eztet iñoiz, etzait iñoiz tokatu. Igual gauza batzuk bai baño dena uf

Ni: nei pasatze zitzaiten igual gelako jendekin o klaseko unibersidadeko jendekin neola, klaro, bat ondarrukoa xxkoa bestea eztaikit nungoa eta segun zeñekin trrrr haste baldin banaiz azkar hitzeitten settun- eztiare ulertzen ta ordun ba bai ez batua baño pixkat

Miriam: bai saiatu in beharra aukazu

Ander.M.: nik hoi de Azpeitikokin ta ikuste't Eskoriatzan nebiyenen gure unibersidaden gehienak hola ulertuko giñen bizkaitarrak hola baño azpeitikok...

Ander.C.: baño beaiek aldatuko zuen

Ander.M.: bai beaiek aldatu behar-bai beaiek aldatuko, guk ite gendun gure era

Ander.C.: ni- gurea ulertuko'ute

Ander.M.: bai, bai gure euskalkia hemen Tolosaldekoa nik uste bastante ulertze'ala

Miriam: bai

Amaia: oso batua dala eo esate'a

Ander.M.: hortik dator ez hortik zeatu zan gipuzkeratik dator. Tolosaldeatik esate'ue garbina eo omen da, garbina

(BARREAK)

Miriam: sosoa da, netzat sosona da

Ni: egie da e, hoi esate'ue

Miriam: baño eztauka...

Ni: ya nei re hala iruitze zait baño

Amaia: nei esan diate euskaldun berri naizela, telefonotik hitzein da "su euskaldun berri sa" "ni euskaldun berri ez" "bueno giputxie" hola e. Nei hola hola esate ziaten.

Ni: ta s ta z ta hoi Lekeitioko lagun batek beti adarra jotze ziten

Ander.M.: bai s-akin nei re bai

Amaia: pijo batzuk gea

Ni: dena ssss itte'ue beak eta

Ander.M.: ya

Ni: e sare sozialetan bueno, zuek ibiltze zeate?

Miriam: ez gutxi, nik tuenti neukan baño bere helburua ya bukatu zanen, mundu guztia watxapea pasa zanen, ya iñorrek etzun erabiltzen ze nik tuenti ibiltze nun "gaur gauen ze ordutan gelditu behar deu" yasta! Eta ya bere funtzioa bukatu zanen, ze mundu guztik whatsapp zeukan ba esan nun txiringito hau itxi ite't, ta eztauket. Nik oañ adibidez eztauket. Asike...

(BARREAK)

Amaia: nik bai. Asko ez baño bai.

Ander.C.: nik kanpoko jendekin ta erlazionatzeko baño bestela...

Ander.M.: nik ez

Ni: hor ze hitzeite'zue euskeraz, osea zuek hitzeitteko garaien

Ander.M.: nik erabiltze nunen denetarik baño erdera e bai xxx

Ni: bai....

Ander.M.: bai nik bai

Amaia: nik euskeraz edo bestela Frantziko lagunakin frantsesez, erderaz oso gutxitan.

Miriam: nik re bai ibiltze nunen euskeraz

Amaia: ta whatsappetik e bai euskeraz

Maidar: nik baukat baita baño eztet erabiltzen. Baño aukat euskeraz jarrita eta-eta euskeraz osea erderaz ez ta euskeraz ezta

Miriam: baño egia da e bai gauza batzuk ordenadoreen arraro ite'ala hasieran e dena euskeraz

Maidar: hasieran

Miriam: ohitura ya "guardar" "cerrar" eta ite'zu klik klik

Amaia: nik lenoko mobiyen e bai neukan aplikazioa euskeraz eta neukan mobiya de bai euskeraz, oaingo mobiyakin ezin det baño bestela de bai euskeraz. Ta batzutan oain ite zait zaya erderaz, gauza batzuk ez naolako ohituta.

Ander.M.: nik tekniko gañea hizkuntza tekniko euskeraz hainbeste erderaz ohituta... asko kostatze zait ordenagayun ta

Ni: geo settun jartze zea e joe xxx dibujitongatik

Miriam: word bea re baita

Ni: baita re

Ni: ez galdera zan ze tuenti, twitter jende askok denetik dauke ez? Osea sare sozial desberdiñak eta aber denetan hizkuntza berdiña erabiltze'un. Ze esate'a gazten arten igual tuenti eta facebook eta bai igual euskeraz eo idazte'ittuela gauzak baño ya iriste'anen e tuiten bat idazte omen due erderaz askok.

Miriam: ta zein da diferentzia? Zea hortan? Tuiten hortan?

Ni: eske enao seguru baño nik facebook-en dauket-daukezu zuk zure perfiya eta twiterren bakit iyotze'ittuzu...

Ander.M.: komentariok

Ander.C.: esaldik

Ni: bai iyotze'ittuzu esaldik, ba eztakit ze "eztakit ze ai naiz" porke jende gehienak holako gauzak idatze'itu

Miriam: ta noa bialtze'ituzu? Orri txuri batea?

Xxx

Amaia: zuk jendei segitze'iezu ta

Ander.C.: jende erabiltze'u albistek eta holako gauzetaz enteatzeko

Ander.M.: bai nere anaia ibiltze'a

Ni: nik eztauket e baño

Amaia: nik euki euki in nun baño enaiz akklaritzen ta enaiz ibiltzen

Ni: eske hoi esan izan due baita, ibiltze'ala jende gehio eo zure segidorentzako bialtze'ituzula

Ander.M.: bai hoi zuk dauzkezu segidorek eta zu

Xxx

Ander.M.: baño hortaz gain gero hor dauden eztakit ze almohadiya ta eztakit ze bakit ze sinbolon bat hor gero ya zu ya almohadiya hoi jartzen ba- e almohadiya hoi jartze'zu ta beste kodigon bat klabe bat, telebistan ta oain askotan azaltze'ie igual

Miriam: bai programa bakoitzen

Ander.M.: "Conquistador" ta almohadiya ta conquis eztakit ze. Ba zuk ya twiterren idazte bazu ehun da berrogei karakter hoitan e tarten e hoi daukela almohadiya "conquis" ta nahizun guztia ya hoi iyotze'a toki batea e hoi sortu'unak ba hoi hor dao beste perfil bat bezela ta ya jendea hortaz hitzeiten ai dana ya daude denak horta kontzentratuta. Eztakit enaiz ai ondo esplikatzen baño...

Ander.C.: eztakit

Amaia: ta mezu pribatuk e bai badaude idaztea twiterretik, pertsonalak e bai bauzkazu bialtzea, nik hoi nik hoi behin in nun baño yasta

Ander.M.: nik hoi telebistan da asko azaltze'alako eztakit

Xxx

Amaia: gehienetan dao jarrita goran edo beheran jarrita kodea

Ander.C.: xxx batzuk ebai daukea ta

Ander.M.: hoi da lehenoz bazan ba zuk mensajek bialtze zenitun e programa hortan zure mensaje bat azaltzeko ba oain hoi ezta iten oain ya da twiterra. Ta hola eztakit.

Ni: bai oain askotan aitze'a

Miriam: bai ta whatsapp re bai e

Ni: bai whatsapp re bai

Xxx

Ander.C.: xxx ta whatsapppeko numeroa emate'ue ta eztakit batenbat eztakit

Miriam: bai ta jendeak bialtze'itu e

Xxx

Miriam: lehen gaztea xxx mezu bat ta gero ez?

Maider: baño esan nahi det oañ igual istripu bat dala ta osea jendeak biali ite'u nahiz ta gaztea o igual da ta esate'u ba istripua eztakit ze

Ni: bueno igual kasu hortako whatsapp ezta hain txarra!

Ander.M.: hoi da, segun ze erabiyera daukeun whatsapp joe kriston inbentoa da!

Ander.C.: xxx

Ni: e Ibarren zemuz hitzeitte'a euskeraz? Ze iruitze zaizue?

Miriam: eztakit ba nik uste daola Ibarren argi ta garbi ikuste'a, nik beti ite't banaketa ez? Jendea plaza ingurun bizi'ana ta gero anbulategitik behera

Ni: anbulategitik gora ta anbulategitik behera

Miriam: eske nabarmena da oso. Azkenen da plaza ingurun ibiltze'ana eztiela igual plazan bizi baño azkenen plaza ingurun moitze'an jendea nik uste gehientxunak euskeraz hitzeite'ula eta gero ya anbulatoriotik behera ba, jende asko baita nola kanpotik etorri'a ta ba ezta interesa euki eta beharra ikasteko ba, ba erderaz.

Amaia: bai eta segun eta ze eskolatan ikasi'zun ez? Azkenen baita eskolapiotik gertu bizi balin bazea eta harea jun balin bazea ikastea, hoiak eztauzkate andereño ta maixuk, hoiak dauzkate profesorek eta profesorak.

Miriam: bai baño bueno eskolapiotako jendek e bai euskeraz hitzeite'u. Osea denetik dao hoi da.

Amaia: bai

Ander.C.: Uzturpen ikasi'un jendek...

Amaia: euskeraz hoi da, euskeraz badakie baño, nik hoi nere lehengusutan ikustet, nere osabak ekartze zitun lehen Alurrea dantza, haik eskolapiota jute zien eta euskeraz ikaste zuen baño inguruko denak nahiz ta euskeraz jakin umetan erderaz ite zuten, ta ordun ekartze zitun umek honea pixkat ateatzeko ingurune hortatik. Nahiz eta euskeraz ikasi ta euskerazko irakaslek euki ingurua, e inguruko umek erderaz ite zien bere semei eta Ibarra ekartze zitun. Euskeraz iteko.

Maider: bai nei iruitze zait e, eztakit nik dantzan ikuste't e LH 5ekokin nao ta e daukate joera baita beaiek ba igual haundigok diela erakusteko bezela eo hasi die ya erderaz hitzeiten beraien arten. Baño ez euskerak lotxa emate'ielako e, baizik eta igual ba haundigok diela sentitzeko o eztakit.

Amaia: guayagok die hola

Maider: bai nei iruitze zait baietz

Ander.M.: forzätzen eongo'ie erderaz hitzeiteko

Maidar: batzuk ez batzuk gurasok erdaldunak dauzkate

Ander.M.: ya ta ordun. Ya baño hala re forzatu in behara aukazu zuk oañ lagunarten euskeraz hitzein balin bazu beti oain bueno jende

Maidar: nik hoi nabaritu'et ze askok jotze'ue erderaz itea, eztakit igual da adiñangatik.

Ni: hoi esate'ue adin batea iriste'ianen igual haste'iel a erderaz ta geo buelta hartze'ula horrek berriro.

Miriam: edo jarraitu ite'u gero

Ni: bai baño hoi da adiñakin xxx

Ni: lehengon esate ziaten Uzturpen adibidez e ume umetan kontuatu'iel a bat erdalduna, denak kutsatze'ittula

Ander.M.: bai?

Ni: ta gure garaien

Miriam: ta gero askotan

Xxx

Ni: ta gure garaien gure gelan da osea bi guraso erdaldunak eztakit, baño bat erdalduna gehienak. O gure kuadriyan erdik baño gehiok gurasok biak erdaldunak eo bat gutxiñez erdalduna. Ta ezta sekula pasa hoi!

Ander.M.: ya

Ni: eta oain ai omen da asko zabaltzen

Maidar: baño ume umetan e bai ikasten dian hitzak dia "no", "no" ta "si"

Ander.M.: bai, ta euskaldunek e bai?

Maidar: bai

Ander.M.: "si"

Maidar: "si" zayagoa baño "no" lehenengoa!

Ander.M.: emate'u errexagoa dala bai bai

Maidar: bai bai.

(16.00)

Miriam: "ez" fuertegoa izango'a igual z hoi pronuntziatzea, auskalo

Maidar: ta "no quiero" de baita da gauza bat

Ni: eta euskera kalidadei buruz?

Miriam: nik uste ya popurri ves “popurri” hitza, nik uste ya eztala esistitzen euska- eske zer da euskeraz bakarrik, ya azkenen ze pasatze zaio euskerai, gaztelaniakin erderakin-erderakin kontaktun daola ta bata ta beste dena nahastea

Ander.M.: hoi ba baño

Maidar: askotan nahi gabe eske

Miriam: hitzak ta gero gauza asko dia hitz batzuk bai, igual euskeraz badao baliokide bat baño gelditzea asko artifiziala, hitz batzuk nei behintzat ite zaizkit euskeraz puf

Ander.C.: guk beste toki batzuket konparauta eztau hain gaizki ez? Donosti inguruan gero ta okerrago dijoala nik uste

Miriam: bai hoi re bai, bueno! Donostin batzuk e bai oso euskera batu garbi-zea daukate e

Amaia: bai

Ander.M.: ba nik-nik hairi

Ander.C.: nei oso forzatua iruitze zait hoi adibidez

Miriam: hoi da hoi da azkenen

Amaia: baño beaiantzak hoi da euskera, nik uste

Ander.M.: eske nik hoi aber, xxx nik uste zaindu in behar deula ba ez erderakada asko sartzen ez, baño nei hizkuntze e hasi’anetiken honeañ beti aldatu’a eta gu ezkea izango xxx esango deunak e euskerak hola izan beha’u, hizkuntza bat azkenen aldatu in behar du, eta erderakadan batzuk sartu beha’uenen pues sartuko’ie. Gaztelanin da re lehengon aitu nun ba euskalki-euskeratik datozen hitz batzuk bai daudela ez? Ba gaizki o ondo ba pixkat zaindu beharko’a ba erdera...ez? Gauza batzuk nik entzun ditutenak eta dexente entzute’tenak gañea “pantaloiak” ba hoi da, ba hoi da, osea. Hoi astakeri bat da e baño beste hitz batzuk ba xxx in beharko deu ze gu erosogo sentitze gea hola esanda.

Miriam: nik uste natural eman behar dan gauza bat dala.

Ander.M.: hoi da hoi da

Miriam: baño batzutan ya hitzak baño gero re bai daukeu tendentzia ai zea euskeraz da tak esaldi batzuk xxx erderaz.

Amaia: hoi batzuk

Miriam: hoi batzutan e bai pasatze’a hitzak izan gabe “bai eztakit ze y vamos a no se que”

Ander.M.: ba hoi igual nik bai ikuste’tela gehio

Amaia: bai

Ander.M.: hoi bai, baño baño “tendentzia” hitza esan dezu oain re ta hoi re “una tendencia” hoi

Miriam: bai, bai bai hombre eske hitzak

Ander.M.: hoi igual euskeraz esate’zu ta forzatzen ai zea, ta euskeraz forzauta hitzeitea baño gauza okerragoik...

Miriam: bai bai bai bai

Ander.M.: eztet uste, ez ordun, zaindu beharreko gauza batzuk bai ta igual bai dao Ibarrako kalidadea hobetu beharra, ni ya azkenaldin enaiz ni Ibarren eztet bizi askoik in baño

Miriam: nik uste azkenen kalidadea dala, euskera azkenen zutzako eguneroko bizitzan komunikatzeko balio balin baizu ba hoi netzako kalidadezko hizkuntza da. Azkenen esate’zu zertako da hizkuntza

Amaia: komunikatzeko tresna bat

Miriam: netzako nere eguneroko bizitzan euskera komunikatzeko tresna bat da, bai ba yasta, eztakit ez? Hoi da garrantzitsuna

(19.11)

Ander.M.: hoi da ta balio’it nere ingurun ibiltzeko

Miriam: hoi da

Ni: alde haundie dao gurason euskeran eta gure euskeran arten?

Amaia: bai nere etxen bai

Miriam: ba eztakit gure etxen azpeitiko zea daukeu euskalkia, ya galduta baño

Ni: bai?

Miriam: bai nere a- desberdiña da nere aita karo damakizki hemen zenbat urte bizitzen, hogeita hamar, azkenen... Nei jendek esan izandu’it ni txikia nitzenen “zuk zure aitai zerbait ulertze’iozu?”, jo nola eztiot ulertuko, nere aita da!

(BARREAK)

Miriam: baño joe baño nik esate nun “joe! Baño nere aitak azpeitiarrez ez du hitzeiten, hitzeite’u, ba dauzke lau hitz o zea baño jun zaite nere osabakin hitzeitea! Ezpaiozu ulertzen nere aitai. Baño hortan desberdintasuna bai, baño nik uste antzeko

Amaia: gure etxen aitak oso gaizki iten du euskeraz. Ta guri beti euskeraz in digu e, beti, baño beak gaizki ite’u, oso gaizki ite’u

Ni: baño gaizki ittea zer da

Amaia: gaizki ite' u beak umetan euskeraz ikasi zun baño beak guri esate'igu e attona ta amonak etziela, iritsi zala momentu bat etziela euskeraz iten ba hoi etzeolako ondo. Ta amona Gaztelukoa e, ta attona Donostitikan etorrita ta etzuela eus-iritsi zala momentu bat erderaz hitzeiten hasi ziela ta etxen erderaz. Ta denak euskeraz anai arreba guztik gaizki ite'ue. Baño gukin denak euskeraz hitzeite'ue. Gaizki e, oso gaizki, kriston gaizki, baño euskeraz. Ta beaien arten beti erderaz. Ta nere gurasok beraien arten e erderaz. Amak aitai euskeraz ite'io ta aitak amai erderaz askotan.

Ander.M.: nik eztet alde haundik ikusten nere gurason alden. Nere attek dauke ohitura hika hitzeitekoa, eztakit mundu guztikin hoi bai, baño bestela hola eztet uste

Ni: ta atton amonan alden?

Ander.M.: berdin-berdintsu

Miriam: bai

Ander.M.: attonak de hika ta, igual

Ni: ta erderakadak asunto hortan?

Ander.M.: erderakadak eta igual gutxigo, ta gero bai hitz zahar batzuk igual bai, bo eztakit nik attona ta amona osea baserrikok die ta tarteka

Amaia: nere attona erderaz jakin gabe hil zan, harek etzekin erderaz, etzun sekula ikasi.

Ander.C.: nere attonak bai baño euskeraz hitzeite'unen euskeraz hitzeite'u, erderaz kostata ite zaio

Ni: e imajinatu gaude hola kuadriyan ta etortzea bat eztakina euskeraz

Xxx

Amaia: guri kuadriya etorri zaigu

Miriam: eske gu izan tzan karo beida nik eztauket prolemaik beakin hitzeiteko baño Pagolakin erderaz hitzeitea, "Pagola dame una caña" pues no me sale osea. Eta karo haste zea ez eta bai hitzein behar deu erderaz ze beak ezta entenditzen, baño gero ya ttak txipa "ai ba goazen eztakit ze" ta bestea ostra!

Amaia: ya

Xxx

Ander.M.: hoi esan behar nun baño zu beti zaude denan konbersazion?

Miriam: ya ez

Ander.C.: ya baño zaya da e beste pertsona bati sentia-sentiarazte xxx

Amaia: Iratin mutiya etortze zanen e bai

Miriam: bai

Amaia: berdiña da, harek erderaz bazekin juxtu gañea, ta gu haste giñen beakin haste giñen erderaz konbersazion ba bea entzuten da bukatze genun euskeraz ta tipoa geatze zan...

Miriam: hombre den dena re ezta baño, azkenen batzutan e bai da zuk, nik esate nun joe baño ni nijoa ba adibidez Iratin mutiya ta azkenen da gure kuadriyako baten mutiya ta zuk iñorrei ezpaiozu ulertzen karo ezta-ezin dezu konber-elkarrizketa mantendu ordun. Karo ba beakin ai zeanen ba oso ondo baño askotan nik uste gukin eotea- oain oso gutxi eotea baño eote'anetan ba igual baten batekin ai da hitzeiten ta bestek ai gea euskeraz

Xxx

Miriam: ba ez gaude denak erderaz baño hoi ba igual beakin pare bat hitzeiten, baño hasiko bagiñen denak erderaz ez genun jarraituko. Etzaigu ateratzen.

Amaia: euskera pasatze gea, haste gea denak mahaien exeita afaltzen, haste gea erderaz ta bukatze deu euskeraz ta kontuatze zea tipoa daola hor. Baño normala da.

Ander.M.: hoi da

Miriam: ta beak e ulertze'u osea

Ander.M.: hoi da ulertu in beharra auke!

Miriam: ta gero esate'iozu ta. Ez baño nik uste beak ondo

Amaia: ondo hartze'u, baño nazkatu ite'a

Miriam: hombre normala, ba guri e bai tipoa haste bazaigu hebreoz ba ni

Amaia: hau haste zaigunen hola eskukin, behatzakin bere keinuk iten e bai iguala pasatze zait nei!

Miriam: aspaldi eztet in

Amaia: beak e bai e euskerangatik aitze'a baño Miriamek zeñu hizkuntza ite'u ta

(BARREAK)

Ni: bai ta bale kanpoko bat baldin bada bai, ta hemengo bat baldin bada eztakina euskeraz? Berdin?

Miriam: ez! Etzaigu hoi pasa baño nik uste ohitura gehiena daukeunak batek ya eztaki yasta ya. Bai, ya beinga denak

Maidar: ni

Xxx

Ander.C.: xxx suposatze'igu ta xxx kostatze zaigu o nei behintzat kostatze zait askotan

Miriam: baño saiatu beti ite gea, bat dao ta igual gaude hogei pertsona ta bat dao ta ya denak joe pues

Amaia: saiatu ite gea beak uler dezan

Ander.C.: xxx saiatze gean beti

Maidar: lagunekin nei etzait tokatu holako egoera baten, baño e noabaitea jute naiz gaur goizen jun naizela Tolosa agentzia batea eta nik lehenengo beti nahiz ta itxura ya esate zun "hau erdalduna da" baño ni hasieratik beti euskeraz zuzentze naiz ta nahiz ta beak nei erderaz hitzein ta ikusten bat beak nei osea nik beti euskeraz hitzeite'iot, esate'iten arte ez eztitela entenditu ta ordun ite't baño nik eske nik eztaukat erderaz hitzeiteko gaitasun hoi. Osea esaldi bat esateko segidan eske ezin det, ze ez tet iñoiz hitzein. Beai euskerakin pasatze zaion berdiña. Ni beak esan arte "e barkatu esa'iazu erderaz" pues nik beti euskeraz. Ta bakit igual gaizki daola o eztaikit gaizki ikusia ez? Ba eske nik ez.

Ander.M.: gai izango ziñeke fijo

Maidar: bai bai bai baño nei kostatze zaitena beai seguro euskerakin gertatze zaiola. Ordun nei etzait inporta nik beai euskeraz hitzeita eta beak nei erderaz, ze nik erderaz ulertzeko osea eztaukat iñungo arazoik, ta beak euskeraz ulertzeko ez balin bauka. Pues erdera eta euskera, eta holaxe eon gea. Grazie ite'u ezta. Ta nik oso gaizki pasatze't erderaz hitzeiteko, eske oso oso osea oso oso gaizki

Ni: baño hoi da ohitura falta ez

Maidar: bai bai ohitura falta da, baño esate'zu, joe ba nik ezeatik in beha'iot beai erderaz

Miriam: ya ya

Maidar: bere-beak jakin beharko luke euskeraz

Miriam: puf nik

Maidar: eta nik oain ikasi'et baño deitze baldin baet unibersidatea o hola jartze baldin baiate erdaldun bat o hola esate'iot "barkatu e euskaldunik badao?" eta e euskaldun bat jartze zait ta oain ikasi'et e baño bakit e baita pixkat

(26.39)

Ni: ez baño zuk eskubidea daukezu zuk euskeraz zerbitzu hoi jasotzeko e

Maidar: bai egia da baño beste alde batetik e baita pentsatze't eta esate't jolin eske xxx

Ni: jo zu Gasteizko gure fakultatea jun ta eztaikit bost-bost idazkari o eztaikit zer dauden eta batek euskeraz erdizka

Maidar: bai bai

Ni: bueno bueno bueno

Maidar: lotsagarria da. Ta nik horreatik pues beti pues euskeraz ite't, esan arte erderaz esateko

Ander.M.: bai bai nei hoi ondo iruitze zait berez hemen Euskal Herrin zaude, Tolosa baten zaude, bueno Tolosa igual dio Euskal Herrin zaude, pos jakin beha-jakin beharra aukea

Maidar: eta esate balin bait erderaz esateko esan ite't e, beaiek esate'uten bezela eske eztakiela igual esaten ondo, osea eztakiela ondo euskeraz, ba nik e bai esan ite't eztakitela ondo erderaz, osea berdin berdin.

Ni: aber baño berdiña da

Maidar: bai bai, baño emate'u

Ander.C.: esate bau educadamente eztakila erderaz, osea eztakila euskeraz mesedez erderaz iteko etzaizu kostatzen, baño gaizki esate baizu

Ander.M.: jarrera

Ander.C.: jarrera, hoi da jarrera da

Xxx

Amaia: hoi pasatze'a tabernatan edo, kafe bat, "un café", e "kafe bat mesedez", e "en casteyano por favor", e kafe bat!

Ander.M.: hoi ya da por...

Miriam: bi (behatzekin eginez) zerbeza!

Amaia: bi zerbeza (behatzekin eginez) ateatze zea gauen eta ite'ituzu señaak ta esate'izu "no no en casteyano por favor" osea barkatu, eskerrikasko, bat, bi, hiru, zerbeza, kafea e coca cola denak ulertze'ue

Ander.M.: ya geo hoi da askotan jarrera

Maidar: bai baño hoi esan duna Miriamek

Amaia: bai baño hoi gertatze'a

Maidar: gertatze'a, bai bai gertatze'a, ba nik holakotan, behin in nun e eskatu nun ur botilla bat eta erderaz esate baziten e etzitzaiten ateatzen "botiyin" osea enun esango, hola esate'a ez?

Miriam: "boteyin"

Amaia: zenek eskatu zun "una boteyina de agua", guri hoi klaseko xxx

(BARREAK)

Maidar: nik berriz eskatu nion euskeraz ta ulertu ziten! Esan nion “ur botiya bat” eta entenditu ziten, lehenengo aldiz xxx ta bigarrenon polikigo esan nion baño “ur botiya bat” ta ekarri ziten!

Ander.M.: jo eske minimo

Amaia: ura, coca cola, kafea, zerbeza... e ez da zaya!

(29.00)

Ni: badaude egunak eoskor jekitze naizena eta nei ulertu arte e “ebaki bat” “¿que?” “ebaki bat” ta ezpait ulertzen e euskeraz, ya azkenen hiru laugarren aldiz esate’iozu erderaz, baño

Amaia: “ebaki ¿qué era?” ta esate’izu “ebaki qué era, ¿solo o cortau?”

Ni: hoi ba, galdetze baizu esan xxx

Amaia: nei hoi esan izan diate “ebaki qué era, es que siempre me confundo” baño hor ikuste’zu jendea saiatze’ala

Miriam: azkenen xxx jarrera da

Ander.C.: beti erantzute’iozu ba eztakit beak ulertze bau ta esate baizu ba e forma edukatu baten ba erderaz eztakila ta erderaz iteko ba nei behintzat etzait hainbeste kostatzen, según ze tokitan, garbi dao. Administrazio publiko baten segun ze tokitan euskeraz ez jakitea ba horrek bai

Maidar: ya baño hoi nola esate’izuen baita e

(DENAK)

Maidar: eske dao

Ni: “no se euskera” “entiendes no?, pues bale, hablamos yo en euskera y tu en castellano”

Ander.M.: bai azkenen bai, hala in behar litzeke

Amaia: zuen fakultaden, gure fakultaden oso ondo, leno gaizki baño azkeneko urtetan ya dauzkate nik uste nun denak erdaldunak ziela asko ta oain dauzkate kartelitik jarrita “euskaraz badakigu”

Ander.M.: a bai?

Ni: bai, ta bakie?

Amaia: bai bai, Rosa xxx-k euskeraz badaki ze ni euskeraz jun nitzen ta

Ander.M.: ba hoi e bai segun ba ni hemen Mondragon unibersidaden, Eskoriatzan, ta han hitzeite’zuen denak euskeraz denak, ta gañea arrasatear azentu

Amaia: magnifico horrekin

Ander.M.: denak, hoi ni hortaz bai, ta gero Mondragon unibersidaden eztakit ze esate'zuen baño bai

Ander.C.: guk re bai irakasle batzuk ez baño

Ander.M.: guk denak, ingleseko natibak izan ezik ta hari barkatze genion!

(BARREAK)

Ander.M.: baño bestela denak euskeraz bai bai

Ni: eske EHU-n badaude...

Miriam: bua, Euskal Herriko Unibertsitate Publikoa da!

Maidar: lotsagarria da e

Ni: guk Euskal Filologiatikan ba bueno, salbatze giñan pixkat, baño nere anaiek eta igual esate'ittue gauza batzuk esate'zuna joe, euskerazkon apuntatu, klasea euskeraz ta irakaslea etorri ta klasea juxtu-juxtu eman ta

Xxx

Miriam: guk ez ni goatze naiz irakasle batekin azterketan, osea arazok azterketa ulertzeko ze euskeraz esaldi batzuk esate'zula "mmm barkatu hau?"

Ander.M.: guri pasa zitzaiguna irakaslea igual ez baño materiala bai. Materiala dena erderaz edo inglez.

Maidar: a guri Miriami bezela materiala gaizki idatzita

Ander.M.: guk materiala xxx ta dena bageneuken baño materiala ta hoi gehiena ikasketatako

Ander.C.: hoi da materiala euskeraz ez daolako

Ander.M.: hoi pentsatze't hoi da

Ander.C.: aber xxx erderaz de asko falta da inglez.

Ander.M.: inglez.

Ander.C.: ta erderaz gehiena baukazu baño segun ze gauza ba

Amaia: ba gu bastante ondo enpresaritzako fakultaten ta batez ere diplomaturan ya lizentziaturan ya aaa baño diplomaturan oso ondota euskeraz igual hautazko batzuk eztaukazu aukera pare bat eo euskeraz iteko bestela beste guztia euskeraz ta euskeraz ondo.

Ander.M.: batuan

Amaia: e ez batua e bizkaitarren bat e bai noizen behin tokatze zitzaizun ta, ez baño ondo. Ta baten uste genun irakasle batekin uste genun harek etzekila euskeraz, kriston gaizki emate

zitun klasek, jun giñen erderako klasea, baño igual emate zitun! Osea etzan etzekila euskeraz, zan harek etzekila hitzeiten o eztakigu. Iparraldekoa o frantsesa o eztakit baño harek etzekin katedratiko zahar zahar bat zan ta harek

(32.40)

Miriam: o igual etzekin klasea nola eman

Amaia: ez etzekila klasea ematen ez, erderako klasea jun giñen ta esate genun ze pasatze'a hemen, baño bea zan etzekin

Ni: lan mundun euskera eskatze hoi? Euskera maya bat eskatzea ta

Maidar: nei ondo iruitze zait

Miriam: nei re bai, nei adibidez pasa izandu zait lanen e nere lan mundua erdalduna izatea eta buf! Nekagarria ite zait, nekagarria ite zait egunero eon beharra zortzi ordu pertsona batzuket dena erderaz. Ze ni goatze naiz harrera pixu baten bronka bota nahien ume batei eta erderaz bota behar nion bronka, ba ezin nion bronka ondo bota! Ze ta ta ta ta ta ezin nion ondo bota bronka ta kaka!

(BARREAK)

Miriam: euske- bai baño netzako adibidez tontakeria emate'u ta beida Donostin zan e baño denak erdaldunak eta zure inguru guztia erdalduna iriste nitzen etxea ta aaaa zan lasaitu hoi, eztakit, erderaz dena tension beti "hau eztakit ze ondo". Tontakeri bat, klasen oain e bai e Bilbon dena erderaz ta pfff ya ikasi in det hoi re bai baño. Ta nik uste behar- jo eztakit hemen gaude, Euskal Herrin gaude ez, gutxinez lanen euskeraz ze pfff

Ander.M.: maya bat eskatzea bai baño gero ya hor sartze'a e maya hoi lortzeko azterketak eta

Miriam: a gero hoi ya beste gauza bat da

Ander.M.: kanpon geatze'ien jendea, EGA adibidez ez, EGA dakitena hola, dao jendea EGAik gabe

Maidar: eta euskalduna! Edo euskeraz hitzeite'una

Miriam: hoi da

Ander.M.: baño ezin duena lortu pues beste arazo batzuk

Miriam: ya gero re bai ikuste'a e benetan zer dan karo eske esate'zu askotan e bai pasatze'a igual euskalduna da baño igual ezta profesional ona, ez? Ta ordun hoi re bai pixkat, esate'zu bai inportantea da euskeraz jakitea baño inportantea da re bai profesional ona izatea, ordun, eztakit hoi zaya da muga hoitan buf!

Amaia: baño minimo bat eskatu behar dala, nei, batez ere segun eta ze lanetako, nik beti jendekin in det lan, beti jendekin eta cara al publico ordun nik uste minimo bat jenden aurren in behar balin bazu ta jendek zuregana etorri behar balin bau minimoa behintzat eskatu behar dala

Maidar: eske hemen behintzat. Esker berez ez lueke ezta eskatu beharko! Osea

Ander.M.: xxx

Maidar: hoi da

Ander.M.: baño egoera hoi

Amaia: nik lana in deten lekun e baita praktikak iteko de, derrigor euskera maya altua, derrigor, eskatze zuten, ze jenden aurren in beha'zu lana

Ni: ta euskera maya altua nola baloratze zuten

Amaia: e EGA eukitzea baloratze zuten eta gero e euskera ama hizkuntza bezela eukitzea ere bai

Amaia: gure-gure unibersidaden gure unibersidadeko kurrikulum-a betetze zunen praktikak eskatzeko, zuk jartze'zu ze hizkuntza dakizkizun, ze maya eta jarri behar dezu ama hizkuntza zein dan. Eta hoi adibidez nik lana in deten lekun e baloratze'ute

Ni: eske xxx

Miriam: bai

Ni: ezpazu itten entrebistan entrebistan ba euskeraz in entrebista

Amaia: ez telefonoz deitze'izuenen praktikak eskeintzeko euskeraz ite'izue

Ni: hola ikusiko'ue

Amaia: "Amaia e Iban naiz, deitze'izut..."

Ander.M.: "en casteyano por favor"

(BARREAK)

Amaia: nik gero erdera re bai errex e! nei euskeraz eo erderaz etortze balin bazaizkit txipa azkar aldatze't

Ander.M.: bai nik re bai, ohitura asko izan det nik re erderaz hitzeiteko ta

Amaia: azkar aldatze't

Ander.M.: bai nik re bai

Amaia: ta gero udaran re bai madrileñok etortze zaizkitenez lanea

Ander.M.: bo erdera re halamuz hitzeite deu e

Amaia: bai nik kriston

Miriam: nik beti esate't nerea dala, nik dauket "casteyano simple" osea ulertze't eta hoi baño vocabulario basico, eske klasen nik Bilbon flipatu ite nun osea jendek batzuk eske baño ze, hoi

ba nik hoi ba ulertze't eta baño nik daukat casteyano basico, a mi no me pidas ahora que si no se que que si

Amaia: un, dos, tres pajarito ingles,

Miriam: nik esate'nun bat, bi, hiru, lau karabin karaban

Amaia: nik hoi ikasi nun erderaz de bai lanen, nei umek erakutxi ziaten erakutxi zizkiaten holako jolasak erderaz ta frantsesez de bai ikasi nun xxx ikasi nitun denak! Nik bat, bi, hiru, lau karabin-karaban hoi nekin ta azkenen beaiek erakutsi ziaten. In ite zea e, in ite zea

(37.44)

Ni: hombre in beharra daukezu

Maidar: praktikatze balin bada behintzat

Xxx

Ni: si o si

Miriam: baño guk bakigu, osea azkenen

Ander.M.: baño nik re txarra re eztet ikusten jakitea, eztakit

Ander.C.: xxx ta jende asko haste'anen erderaz hitzeiten ta parra ite'u ta "ze gaizki akit, eztakit ze" baño nik uste ona dala erdera jakitea

Amaia: eske azkenen beste tresna bat da

Ni: bai bai

Ander.C.: gaude bizi guztin inglesa ikasi beharra aukeula ta eztakit ze ta geo erderaz xxx

Miriam: ya

Ander.M.: hizkuntzak ez, beti euki'ue, esate'ue

Miriam: bai bai, ta gero ta gehio jakin hobeto!azkenen

Xxx

Maidar: xxx bai teoria badakizu, gramatika bakizu baño falta zaizu hitzeitea

Miriam: jo baño erderaz

Ander.C.: jo baño askotan jende askoi pasa zaio, eztakit, etzala atrebitzen bezela erderaz eta

Maidar: bai bai, nei adibidez, osea nik idazteko eztaukat iñungo zailtasunik, osea tildek eta eske badakizkit, baño eske iñoiz eztet hitzein erderaz, osea familin denak euskeraz, e-eske eztauket iñor, iñor erdalduna.

Ander.M.: nik e ez baño

Maidar: goatze naiz txikitán e Maidar Lopetegín amona etortze zan noizik eta behin Maidar xxx eta ordun banekin erderaz hitzein behar nula, baño nik erderaz hitzeiten eske aurkezpenen bat edo hola, eta eskolan re baita esate zien gurasoi “ez ez eske erderaz hitzein behar du” eta eguarditan haste giñen obligatuta erderaz hitzeitea, ta esate-pentsatuko’zue ordu erdi baten erderaz hitzein behar genula, bai lehenengo hamar minutu, gero ya euskeraz, baño iñoiz eztetelako izan erderaz, etzait sortu erderaz hitzeiteko behar hoi ze beti euskeraz komunikatu naiz, ordun

Amaia: ta oporreta jute ziñenen

Maidar: eske iñoiz enaiz jun

Amaia: gu ka-gu kanpiñea jute giñenen Kantabria, ta nik han ikasi nun

Miriam: baño zu adibidez oain Gizarte Integrazioa ikasten ai zea

Maidar: ez

Miriam: a sonatze ziten baietz

Maidar: hasi nitzen baño Lehen Hezkuntza ai nitzen ta utzi in nun azkenen

Miriam: a bale bale

Amaia: bai ze hor euki-eukiko zenitun asignaturak,ez?

Maidar: badakit etorri behar zaitela momentu bat e erderaz in behar detela, dantzan guraso batzukin hitzeiten erderaz beldurrez, eske lehenagotik pentsatu beha’et ze esan beha’ten

Ander.M.: hoi ba hoi esan nahi det, etzaizu interesatzen ezta re xxx

Maidar: bai baño eske zeñekin haste naiz, zeñekin haste naiz hitzeiten, eztaukat iñor erderaz hitzeiteko

Amaia: uuuu ba etorri udaran nekin ta madrileñokin ta kriston ondo ikasiko’zu

Miriam: jun asteburu bat Bilboa ta yasta

Amaia: baita re, baita re

Ander.M.: holako gauzak planteatu, hombre!

Maidar: bai bai bai, baño oain xxx

Ander.M.: zuk esan dezu, eskolan bialtze zizuela erde-erderaz gehio hitzein behar zenula da etxe-e eguarditan orduerdi hitzeiteko gurasok, horrek eztu ezertako balio, porque zure gurasok de eztakie, bo eztakie ez jakingo’ue baño zukin erderaz hitzeiten eztakie. Hoi jun beha’zu

Amaia: kanpoa Ingalaterra inglesa ikastea xxx

Ni: hoi jun beha’zu Castilla La Mancha o hola!

Maider: hoixe

Xxx

Amaia: ba nere, ba nere unibersidadeko azpeitiar batek denak Erasmus Alemania, beste Frantzia, ta “zu Nerea?” ta “a ni ez, ni Madriyea, nik lehenengo erderaz ikasi beha’t” ta han jun zan Madriyea lehenengo erderaz ikastea. Bai bai

(41.27)

Ni: Gero da saltoa ematea xxx ta geo pasatze zait askotan igual kuadriyan ta hola

Ander.C.: aber ingurun balin baukazu bat erdalduna o hola ta ze-ze elkarren arten ta hola

Xxx

Ni: xxx erreparokin bezela, erreparoa emate’it ta iruitze zait denak nei beida daudela ta aber noiz esango’eten zerbait

Ander.C.: xxx

(DENOK BATERA HIZKETAN)

Ni: baño xxx ta ordun ba saiatze naiz ba, bo ez saiatu baño etzait igual ateatzen hainbeste beakin hitzeittea

Maider: bai nei re berdiña, baten bat eske nei etzait tokatu baño igual e taberna baten sartu ta erderaz hitzein behar balin bazaio ni enaiz erderaz hitzeiten hastean hoitakoa xxx hoitakoa

Ander.M.: joe ba bira, ya hor mugatze’izu ya tipo eztezu ezautuko

Miriam: ya

(42.23)

Maider: ta ez ezautzeana, osea e igual xxx eskatzeana eo miya gauza, ez ez eske erderaz ez!

Ander.C.: baño askotan

Maider: eta badakit ingurun ta

(DENAK BATERA HIZKETAN)

Maider: hoi da, ba igual esa-esango nun baño, xxx esate nun “joe Maider zuri erderaz aittuko nizuke ba nola itte’zun” ta esate’t

Miriam: hoi da, hoi da

Maider: xxx horrek mozte’izu piya bat ta esate’izuenen nola esate’zun “s”-a ta horrek ya xxx

Ni: ta zenbat eta gehio pentxatu

Maider: okerrago bai

Ni: yasta ya la has cagau. Euskera galtzear daola uste'zue eo

Ander.M.: ez

Miriam: nei iruitze zait gure esku daola, guk ez balin badeu nahi eztet uste

Maidar: nik eztet ikus- hemen behintzat eztet ikusten galtzeko

Amaia: hemen ez, baño hemendik kanpoa, Bilbon

Miriam: bueno

Ander.C.: baño lehen nola zeon, okerrago zeo-osea hobeto?

Miriam: karo

Amaia: nik uste gehio dakigula, osea gehiok ikaste deu euskera baño gutxigok erabiltze deu

Ni: xxx ikerketa bat in due eta da osea da ezagutza

Miriam: iyo in da

Ni: azkeneko ikastola ta sortu zianetikan, euskera batua sortu zanetikan askoz e gehio ikastolatan ta

Amaia: gehio formatu gaitue

Ni: azkenen xxx baño erabileran

Amaia: polikiroldegiko aldagelatan ikuste't nik, etortze'ie umek, gaztek eta oso gutxik ite'ue euskeraz beaien arten, hamahiru, hamalau urtekin, oso gutxik

Miriam: baño nik uste hoi adiña dala, hamahiru, hamalau urtekin izan beha'zu guaya, ta guaya da erdera ta bua ta ya ingleseiz hitzeite bazu

Amaia: bai ta zeba da hoi

Ander.M.: hoi betidanik izan da, ez?

Miriam: zeba, ba

(DENAK BATERA)

Miriam: zeba ba telebista guztia erderaz da, programa guay guztik erderaz die, euskeraz zer daukezu, ETB1 mmm ostiral atxaldetan pelota eztakit ze ta hamahiru urtekin osea egia da, osea esan nahi dizut kanal bakarra dao ta hamahiru urtekin ETB1 ba ze ikusiko'ue, kanal aspergarria da, eztakit zure ingurune guztia guay mundu hoi dena e-eztao euskeraz, zure ingurutik kanpo, osea eztakit nola esplikatu

(45.02)

Amaia: baño zu guaya baldin bazea e bai norbaiti-norbaiti imitatze'iozu

Miriam: ya baño azkenen zein die guay hoiiek, ezte imitatzen euskaldun batei, imitate'ie Justin Bieberrei eta eztakit zeñei eta, osea ezte imitatzen

Amaia: ra-raroa da, raroa da

Maidar: nei bai iruitze zaitela zuk esan dezuna guayagoa dala, ze ya re baita eske ez erdera bakarrik, inglesa re bai e, ume askok, umek, erde-osea inglesez esaldik eta

Miriam: bai bai, ni

Maidar: baño piya bat! Piya bat!

Miriam: ni lehengo urten goatze naiz udalekutan eta igual txorraditas eztakit ze idazten bata bestei "I love you no se que"

Maidar: bai bai "I love you"

Miriam: ta aber ta gero ikuste'zu umea "pasa baloia!!!" ta "I love you no se que". Aber xxx baño baño guaya da eta jartze baiozu "forever" lau eta "ever" ba ya super guay

(BARREAK)

Miriam: ta yasta hola da eske hoi da, hoi da azkenen moda zein dao modan, ze euskaldun dao modan hamahiru urtekontzako, eztao figuraik ordun ba, eztakit, inbentatu in beharko'a bat oain

Miriam: eztao, lehen "Hasiberriak"-ekok zian guayak, ni gaztea nitzenen ta ordun hoi izango'a

Amaia: Guti

Miriam: karo

(BARREAK)

Miriam: ikusi'zu xxx "Hasiberriak"

Amaia: ez

Xxx

Miriam: aber leheno nik ikuste nun hau, ze gaizki ite'uen e?

Amaia: Galder ta

Maidar: oso gaizki ite'ue

Miriam: ta oain ikusi ezkeo seguro dala kutrada bat baño

Ni: oain dela gutxi aitu zien botatzen e, ETBk hogeita hamar urte in dittun hontan ba hogeita hamar urteko gauzak botatzen ai die ta ta bai haste zea ikusten da, gañea ordun iruitze zitzaizun oso

Maidar: dinamikoa zala

Ni: mantzoa hola

Ander.M.: nei Songokukin pasatze zait hoi

(BARREAK)

Amaia: ya hoi re bai botatze'ue ETB3n edo

Ander.M.: nik jetxi in nitun friki friki

Ni: bai?

Ander.M.: bai bai

Ni: lehengon adibidez esate ziaten e in nien baita re hamabi, hamabost urte bitarteko grabazio bat ta haik esate zuen erdera ta Tolosan gehio hitzeitte'ala Ibarran baño eta esate zuen Hirukiden ezta hitzeitten euskeraz, e Samaniegon erdik eta Laskorañen bueno bai Laskorainen gehio

Amaia: e ba hamabi hamabost tarte hortan eztakit ze esan, Laskorañen askoz e gehio hitzeite'ala

(47.40)

Ni: ez lehen aldagelatan esan dezunez

Amaia: a ez nik aldagelatan, aldagelatan entzute'itut erderaz ta batzuk die Laskorañekok bestek die Hirukidekok eta bestek die Samaniegokok

Miriam: Laskorañekok klasen ingo'ue euskeraz, hoi bai, ikastola da baño

Ander.M.: bai

Amaia: baño gero hortik kanpo

Maidar: ta Hirukiden

Xxx

Amaia: klase-klasen euskeraz ite'ue

Maidar: baño igual dauzkate Hirukiden guraso erdaldun gehio Laskorañen baño

Amaia: baita re

Maidar: ez? Edo xxx eta euske-euskeraz hitzeite'ue etxen

Miriam: bai

Maidar: Hirukiden baño eta azkenen Orixen nola de baita jute dien ba Berastegi, Berrobi inguru hoitatiken e baita, bestetan baño gehio Laskorañea eta Hirukidea baño gehio eztakit

Miriam: eztakit

(48.27)

Maidar: igual jorreatik izan leike

Amaia: hoi klasen ba bai, ikastola da ta azkenen bai ez? Euskeraz igual bai, baño gero kalsetik ateatze'ienen

Ander.C.: xxx

Amaia: oso adin hortan, txikigotan igual bai antzemate'ala gehio, txikigotan bai antzemate zaio igual, baño hamabi hamabostekin klasetik ateatze'ienen

Ander.M.: txikitan euskeraz hitzeite'ue gehienak e, erderak ite'ie, erderak parragurea emate'ie txikitan, eztakit nere klasekok behintzat bost urtekok erdera hartze'ue

Amaia: bai ite'ue gehio

Ander.M.: eztakit graziosogo bezela ta e ite'ue parragurea emateko beste, ez guayago izateko ez? Zaharragotan baño bestek parragurea emateko erderaz hitzeite'ue

Amaia: zu ze adiñekokin zaude

Xxx

Ander.M.: bost urtekotan gero asko daude xxx

Amaia: nik dauzkat oain sei zazpi urtekok ta hoiekin euskeraz kriston ondo, ta gero dauzkat beste talde batzuk ya hamar, batzuk adolescentek e hamabi hamahiru ta hoiek ya erdera jotze'ute askoz e gehio, bai Laskorañekok, bai Hirukidekok, bai Samaniegokok

Ander.C.: hoi xxx nik uste

Amaia: klasetik kanpoa

Miriam: baño nik uste hoi gero pasa ite'ala e, ta beste batzui etzaie pasatzen

Ander.M.: ya baño gero ya afinkatu ite zea o baten o besten

Miriam: hoi in beharko deu, Justin Bieber euskaldun bat sortu, kutrea izango'a xxx izango'a euskal ezta-eztakit

Amaia: eske hoi re bai ar-arraroa da, euskera batuan ikuste deunen guk e bai telebistan ze o ze eo nei behintzat arraroa ite zait, artifiziala ite zait

Ander.M.: bo telebistan

Ni: telebistan bai?

Ander.M.: telebistan ohittutago zaude

Miriam: hoi da, telebistan zer daukezu? Hola Goenkale, Goenkalekok batua batuaz hitzeite'ue

Xxx

Maidar: “Goenkale”-kok hain batua re ez e, segun zeñek, nei iruitze zait berez jokatzé’uela “Goenkale”-n euskalkik eta sartzen baita, osea batua erabiltze’ute baño

Miriam: bai, hoi bai

Maidar: nei iruitze zait eztala bakarrik batua

Miriam: eztakit, aspaldi eztet ikusi

Ni: jo Manex batek iparraldeko hizkera itte’u

Maidar: bai eta xxx ite’ute beste batzuk

(50.40)

Miriam: eztakit zein dan

Xxx

Ni: bueno hika batua da baita e, osea hika izan deike batu eo euskalkia xxx osea hika izan deike euskalkin eta batun

Maidar: ya

Ni: osea hika da beste registro bat

Miriam: berez beste xxx gu ai gea berez hika

Amaia: guri Felixek garai hartan esan zigun hikaz hitzeitea zala, berez, e erderaz ‘tuteatzea’, ta zuka hitzeitea zala ‘de usted’, ta berorika zala asmatutako zerbait. Felixen teoria zan

Ni: nik hoi entzun izan det, e zu- zuka dala de usted hitzeittea eta

Xxx

Amaia: baño euskera gutxietxita, euskeraz gutxietxita eondakon, azkenen hika euskeraz bakarrik animaliri hitzeite zitzaiaela, pertxonan arten etzutela hitzeiten euskeraz eta animaliri hitzeite zitzaiaela. Ordun gelditu zala hika maya bajugo baten bezela. Hoi denak zien Felixen

Miriam: joe uste’t maya bajugo baten baño gehio azkenen hika erabiltze’zula konfiantza daukezun jendekin

Amaia: hoi, konfiantza daukazun jendekin baño guri iruitze zaigula e e ez? Ir-zuka hitzeitea dala “hablar de tu”, ta hika hitzeitea dala zerbait gertugokoa bezela ta hoi dala e e euskeraz etzutelako elkarren arten euskeraz etzutelako hitzeiten debekatuta zeolako ta animaliri hitzeite zitzaielako hika, edo holako zerbait. Felixek edo nere etnozientziatako irakasle azpeitiko horrek esplikatu zian, bitako batek. Euki nun hola

Ni: ta neurozientzitan ze emate’zu

Amaia: eske aukera-aukera askeko bat in nun, zortzi kreditu xxx zien ta Oñatiko bi neskakin jun giñen sik-filosofiako fakultatea etnozientzia Euskal Herriko kultura eta etnozientzia ta eztakit ze aukera askea

Miriam: filosofiako fakultatea ez barkatu, iefia gure-gure fakultatea dala. A oain filosofiakok hamabost die ta beaiena da!

(BARREAK)

(52.52)

Amaia: ba in nun e bai holako paja mental bat

Miriam: gure fakultatea da, ze espero zenun, rarito guztik

Amaia: Mikel Laboan oso lagun batek eman zigun klasea, dena esan dizuet

(BARREAK)

Ni: lehen aitu gea xxx umek ikuste'uela erderazko zea, guk ze ikuste deu?

Miriam: ze?

Ni: telebista, irakurri, irratia...erderaz, euskeraz, ingelesez...?

Miriam: nik irratia adibidez, gure etxen entzute'an bakarra, euskeraz entzute'a, futbol zikiñ hoi kenduta baño bueno, parte hoi tema aparte. Eta telebista azkenen euskeraz ETB 1 dao, ba bueno ikustea daukezu, bo baño gauza batzutako ba nik uste gehienbat notizik eta gure etxen nola eztan Goenkale ikusten ba pelota ta holako zeak, baño telebista gehiena erderaz. Eta prentsa adibidez, nere irakurri, idatzi... eztaude euskeraz alfabetatuta, ordun piyo bat kostatze zaie, ordun erderaz irakurtze'ue. Eta nik garai baten, oain ya gutxigo irakurtze't baño, garai baten neukan ohitura bat eta bat iteko, e e lib-liburu bat euskeraz irakurtze nun ba geo hurrengoia erderaz ta hola. Harta bitatiken praktikatzetu ta.

Amaia: nik zerbait irakurri nahi balin baet, liburu bat eta balin badakit euskeraz ateako'ala saiatze naiz etxoiten

Miriam: a hoi bai

Amaia: euskeraz atera arte ta gero irakurri ite't. Normalen gehio, irakurri gehio euskeraz

Ni: erderaz balin bada e bai? Osea bersio orijinala erderaz balin bada itxooin itte'zu?

Amaia: saiatze naiz etxoiten, benetan balin bada irakurri nahi-nahi detela ta ba esate't ba "liburu hau ingo'et erosi ta irakurri" ta euskeraz dao ba etxoin ite't. Adibidez, e J.K. Rowling-ena, "Harry Potter" in duna helduntzako, hoi euskeratu du e Lizason alabak, Lizaso Laskoraingo irakaslea? Bere alabak euskeratu'u. Ta entzun genun, entzun nun irratin euskeratu in'tzula ta etxoin in nun atera arte euskeraz argitaratu arte ta erosi in nun

Ander.M.: Lizaso?

Miriam: Kaxkajo

Ander.M.: horren alabak?

Ander.C.: ez tet ezautzen

Ander.M.: nik nik irakurri erderaz

Ander.C.: nik re bai

Maidar: nik e bai

Ander.M.: bo erderaz e... Irakurri izandu'et e baño. Ni hortan ama bezela naiz, ni eztaik zeatik erderaz errexago irakurtze't

Ander.C.: nik e bai, beti kostatu izan zait euskeraz liburu bat hartzea, eztaik

Ni: hartzea o irakurtzea? osea ulertzea

Ander.C.: ez ez ulertu ulertze't nik osea, eztaik erderaz nik gustogo hartu izan ditut, eztaik zeatik e

Ander.M.: nik ulertu re in ite't baño nik uste't erderaz re gehio irakurtze'tela eztaik ba ya, euskeraz irakurtzeko nobelak kostatzen zait

Amaia: umetatikan nola hasi ziheten irakurtzen, euskeraz irak- euskeraz irakurtze zenuten edo erderaz?

Ander.C.: euskeraz

Ander.M.: euskeraz pentsatze't euskeraz baño

Amaia: ez ba zeuden "bostak" "bostak" eo "Los cinco"

Ander.M.: ba nik garai haitan desbiatu nitzen eta "Bostak" bezela zan "Los Hoolister"

Amaia: hoiak e bai irakurtze nitun

Ander.M.: ta nik "Hoolister" irakurtze nitun ta ya

Ni: ordun hasi zihen Muña, ordun ya...

Ander.M.: jendeak "Bostak" irakurtze zitun ta ni "Bostak" ba ez ez

Ni: "Bostak kanpiñean" enun lortu irakurtzea, beste guztik

Ander.M.: nik Hoolister bai familia zien "Los-los Hoolister" erderaz

Ander.C.: ni txikitik behintzat euskeraz baño gero ya eztaik zeatik, ba izango'a eskolatik bialtze ziguen irakurtzea ta iñoiz enitun gustoa hartu ez erderaz ta ez euskeraz, obligauta irakurtzea

Ander.M.: ya

Ni: ya

Ander.C.: ta xxx baño bietan erderaz

Ni: ba aukera badao

Ander.C.: bai bai aukera badao, eztakit kalidadea eztakit nola izango'un batzuk o bestek eztet konprobatu e, eztakit, ezin det baloratu

Maider: nik irakurri baita erderaz, bai raroa da baño, irakurri erderaz. Euskeraz irakurri'etenetan izan da eskolagatik ta gehienbat igual e baita behartu'iatelako beti "benga Maider erdera, erdera, erdera" baño ez irakurtzea gustatze zait ta oañ e bai irakurtzen ai naizena e bai osea erderaz. Ta igual e baita da askoz osea hartu'ittuten liburuk egokigok izan dia, osea gehio gustatu zaizkit erderaz euskeraz baño, eztet iñoiz irakurri liburu berdiña bi hizkuntzatan e baño, eztakit, aukeraketan arabera, osea gehio gustatze zaizkit erderaz.

Amaia: aukera e bai gehio dao

Maider: aukera gehio dao, baño eztakit, eta euskeraz irakurri'etena izan da pos eskolagatik o gomendatu'iatelako "irakurri liburu hau"

Ni: bai ze nei zuk gomendatu zizkiazun "Musika airean"

Maider: bai oso politta da

Ni: eta hortatik dakit

Maider: eta "aulki jokoa" re bai

Ni: badaude bai

Maider: baño gutxi daude, osea nei holako asko ikustea zean, gutxi o eztitut asko biyatu

(58.10)

Amaia: nik uste azkenen telebistakin bezela gertatze'ala, osea gertatze'a, motz gelditze'a

Miriam: bueno ba

Amaia: baño aukerak...

Ni: oañ geo ta gehio dao euskeraz e

Amaia: gauza bat da eotea eta beste gauza bat da kalitatezkoa izatea

Miriam: baño nik uste badaola, gauza bat da itzulpena eta beste gauza bat da euskeraz idatze'ala, eta nik uste, jo eztakit, gero da ohitura

Ni: ni uste eztala kalidade txarrekoa

Miriam: nik irakurri xxx oso gustoa

Ander.C.: gauza da beste batzuekin konparatze bazu ba xxx garaiko hoikin konparatze'zu

Amaia: sortu bai, baño gero itzultzea nahi balin bazu benetan liburu bat irakurri, bestseller bat nahi balin bazu irakurri

Miriam: nik adibidez "Harry Potter"-enak denak euskeraz irakurri'itut

Amaia: nik re baneuzken re bai

Miriam: eztaikit nola dan erderazko bersioa baño nik oso gustoa irakurri'tut

Amaia: nik etxen denak euskeraz dauzkat de bai

Miriam: ba eztaikit

Ni: "Harri Potter"?

Amaia-Miriam: bai.

Amaia: amak oparit-umetan amak oparitu zizkiten lehenengo bik euskeraz

Miriam: nei re bai eta

Amaia: gero ya euskeraz hasi nitze irakurtzen eta denak euskeraz irakurri nitun. Itxoite nun atera arte, mundu guztik irakurrita zeuzken ta nik ez

Ni: zuek telebista ta?

Ander.C.: erderaz gehiena

Ander.M.: nik de bai

Ander.C.: ezik albisten batzuk euskeraz, baño erderaz

Ander.M.: bai nik re ETBn gehiena honek esan duna kirolak, kirolak ta gero ze ikuste't nik ETB 1en. Eztet ezer ikusten, telediariora re ikusiko nun e seguruna baño orduategia eztaikit zeatiken, orduategia xxx. Nik dena telebistan erderaz.

Maidar: ba nik gehiengoa euskeraz, baño "Goenkale" hoi bai, e "Bisitaria" e bai

Miriam: a beida hoi politta da, noizbehinka ikusi izandu'et

Amaia: hoi politta da

Ander.M.: nik re ikusi'tut batzuk e

Maidar: eta gero uda- e gero tolosak- e bai "Tolosaldea telebista"

Miriam: a nei hoi de noizbehinka gustatze zait, ikusteko aber ze pasatze'an

Maidar: egia da e errepikatze'uela

Miriam: a hoi bai behin ikuste'zu ta gero hiru astetan eztaukezu ikusi beharrik baño

Maidar: kalitatea re bai ezta oso ona

Amaia: Tolosaldea dauka hoi ez da, hoi ez da “Hamaika Telebista” Hamaika beste

Maidar: ez hogeita zortzi kanala

Amaia: eske nik ordun hoi eztet ikusten

(Denak batera ari dira hizketan eta ez da oso ondo ulertzen)

Miriam: xxx baño beste batzutan, adibidez Apatarrekan in zuen beste zea hoi esan nun “beida hoi”

Amaia: a ze xxx

Miriam: bai, ni gauza batzuk hor enteatzte naiz

Maidar: bai ta gañea da gertuko ge-hemen gertatze’ien gauzak ta nei gustatze zait

Ni: bai osea e xxx baño eztakizu seguru ezta noiz botako’uen

Miriam: eztakit ze ordutan terditan izate’a beti

Ni: a bai

Maidar: baño gero, denbora guztin errepikatu ite’ute

Ni: a hoi bai

Amaia: nik oain “Hitza” irakurtze’t egunero ta ta yasta

Maidar: baño ezta berdiña irakurri eo ez? Irakurri o ikustea

Miriam: ta gero anuntziok, nik hor ya anuntziok memoriz dakizkit “Rotulan errotulazioa” ta

(Denak batera ari dira hizketan eta ez da oso ondo ulertzen)

Maidar: eta hitzeiten e baita asko jeiste’a

Miriam: ba bueno, ba nik uste nahikoa ite’uela e nik ikuste’itut “Tolosaldeako kanala”ekok Zizurkiyen eztakit zer daola eta handik ordubetea ba nahikoa ite’u. Alde batetik bestea ibiltzen, herri txikita...

Maidar: bai bai

Miriam: Abaltzixketan jarri’ue eztakit ze itturri berri ta benga harea hoi grabatzea, batzutan notizi batzuk die. Ta gero Tolosan egia da e. Ta gero “Tolosaldea kanala”-n ite’ue Goierriko kanalen eo eztakit ze eote’ala tipo bat beti baserriko elkarrizketak iten, eske batzutan oso grazioso da: “ bai hemen gaude eztakit zeñekin, baserritarra” ta esate’zu, programa guztia da baserritarrei buruz

(Denak batera ari dira hizketan eta ez da oso ondo ulertzen)

Miriam: hoi, hoi re bai eske batzutan esate'zu "ze programak tio" azkenen hor

Maidar: eta gero hoi baita re errepikatze'uela, aste guztin berdiña botatze'ue

Miriam: bai karo eske notizik ezta aldatu!

(1.02.30)